



ARGIA

EUSKAL HERRIKO IKASLEAK **GERO ETA SEGREGATUAGO**

Ghetto eskolen errealitatea



DEPRESIOA ETA GENEROA: ONDOEZAREN ITURRIA DESPAREKOTASUNA DENEAN

ALLANDE ETXART, ZUBEROAN MATALAZ ALTXATU ZENEKOAZ

JORDI BORRÀS: "HELBURURIK EZEAN, BORROKA SINBOLIKOAN HARRAPATUTA EGONGO GARA"

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

.....
ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

 **ARGIA**
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

   @bizibaratzea

*Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Samir Amin hil da, periferiako herrien deskonexioaren teorikoa

IRITZIAK

- 17 Aiala Elorrieta Agirre
- 18 Enrike Diez de Ultzurrun
Edu Zelaieta Antia
- 19 Imanol Alvarez



Jordi Borrás fotokazetaria eskuin muturreko mugimenduen mehatxuen helburu bilakatu da azken urteotan. ORIOL CLAVERA

- 25 GORPUTZA
- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MARÍA TORRELLAS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Raúl de la Fuente: "Afrikan oso zuria sentitzen zara, nahi eta nahi ez pribilegiatu" / Reyes Ilintxeta
- 20 | Ghetto-ikastetxeen egunerokoa / Mikel Garcia Idiakez
- 26 | Depresioa: Diagnostikoa, berdintasun eza / Amaia Lekunberri Ansola
- 30 | Periko Berrioategortua: Elkartasun eta konpromisoaren irribarrea / Urko Apaolaza Avila
- 32 | "Edonork ez dauka gaitasunik edo baliabiderik hizkuntza-gatazka bati aurre egiteko" / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Jordi Borràs: "Eskuin muturreko gaietan murgildu nintzen jakinik jo-puntutzat hartuko nindutela" / Saioa Baleztena
- 44 | Allande Etxart: "Abertzaleek ere historia ofiziala, erreala balitz bezala hartzen dute sarritan" / Mikel Asurmendi

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE




**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus

Lotsaren harana

Diktadorearen gorpuzkinak urte amaiera baino lehen deshobiratuta, Erorien Harana faxisten erromes toki izatea eragotzi nahi du Pedro Sánchezen Gobernuak. Ez da memoriaren museo izango, asko jota hilerri zibil. Berradiskidetzearen gune izateak ez du zentzurik, nola ba? Frankismoaren “bi Espainien” errelatoari haizea ematea litzateke, erregimenak derrigorturik eramandako milaka errepublikar anonimoren hezurrek hor jarraitzen duten bitartean, beldurraren tenplu mortu zaharkituan. Gutxienez hori jakin dezatela turistek *selfie*a atera aurretik.

Argazkia: Santi Donaire · Testua: Urko Apaolaza





EITBk iktusaren kontrako maratoian jasotako 108.000 euro ez dira ikerketara bideratu, "maratoiaren gastuetara" baizik.

t "Jendeari dirua eskatzen badiozu, gehiena ikerketara bideratu beharko litzateke, ez antolakuntza gastu, arrandia, ponperia eta luxura. Eman duzunaren %27 etb-k beretzat hartu du, eta telebista publikoa da"

@eidergorostiza

f "Bildutako diruaren %100 bideratuko zela hitz eman herritarrei, eta 4 eurotik 1 ezkutatuta gelditu... Euskaldunak izango gara, bai, baina ez gara hain ezberdinak"

Garikoitz Zubillaga

t "Ez diet inoiz itxura onik hartu halako ekimenei. Zer egiten duten diruarekin ez dute gero oso garbi azaltzen. Maratoi horiek batez ere egiten dira antolatzen duenaren propagandarako"

@xabirico



DEL CAMPO AL COLE / JOSEP BEDMAR

Ausolan, txikien mahaian handi

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Carro de Combate kolektiboak eta Del Campo al Cole agroekologia elkarteak Espainiako Estatuko eskola jantokiez txostena argitaratu dute. Horren arabera, azken urteetan korporazioen etekinak handitzeko negozio eredua gailendu da, "elikadura burujabetza, tokiko garapena eta elikadura onaren kaltetan". Datu bat: merkatuaren %58 bost konpainiaren esku dago eta 630 milioi euroko "pastela" banatzen dute. Tartean da Ausolan.

Mondragon Taldeko konpainiak Euskal Herriko eskola-jantokiak esleipen gehienak eskuratu ditu bere enpresen bidez. Baina kanpoan ere ari da hazten. 2018an Cocinas Centrales enpresaren jabe egin zen -800 pertsona enplegatzen ditu Madrilen eta Gaztela Mantxan- eta Hego Amerikara jauzia egin du Ausolanek: Txilen supermerkatu eta petrolio-enpresak

hornitzen dituen ostalaritza sozietate baten jabe egin da.

Europako ostalaritza kolektiboko enpresen rankingean, handien artean dago jadanik. McDonald's, Compass eta antzeko multinazionalen ligan jokatzeko du euskal konpainiak: 2018an 225 milioi euroko salmentak izatea espero du.

Herrien Bidezko Elikaduraren eta EHIGEn iazko ikerlana eskuan, Carro de Combatek azaldu du bazkaltiarren kopurua hamar aldiz biderkatu dela EAEn azken 15 urteetan -egun 100.000 inguru dira-, baina bakan batzuk baino ez dira "berezko kudeaketa" duten jantokiak: "Elikadura burujabetzaz ari garenean, ez gara soilik esaten ari pertsonen elikagai osasuntsuak eta euren kulturari lotutakoak jateko eskubidea dutela -kapitalismo globalaren eredu agroindustrialak dakarren elikaduraren aurrean-, baita ere eskubidea dutela erabakitzeko nola produzitu eta kontsumitu beren elikagaiak".

"Behingoz, euskaldun guztiak berdin hartuko dituen egoera sortzeko aukera ikusten dugu"

PAUL BILBAO, KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

Nafarroako Parlamentuan euskararentzat lege berria aztergai dela baliatuz, urriaren 27an mobilizazio handia iragarri du Kontseiluak, "nafar guztiei euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuko dien ofizialtasuna eskatzeko. Abagunea probestuta, indar egingo dugu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatuko dituen egoera sortzeko. Lortu daitekeen zerbait dela uste dugu eta aukera hau pasatzen uzten baldin badugu, eragina epe luzekoa izango dela uste dugu. Bada garaia urtetan egindako kaltea erreparatzeko". 2018-09-05



FAUNA PUBLIKOA

**"Hondarribian Alardea
bizitzeko bi moduei aitortza,
begirunea eta babes
adierazi diet bata zein bestea
errespetuz ikusiz"**

Eider Mendoza,

**Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea
(Facebook)**

Hau onartzen baduzu...



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

In medio virtus, esaten zuten pentsalari klasikoek: zentroan dago bertutea, ez muturreko jarreretan. Baina gaur hona ekarri dugun adierazpena deskribatzeko, egokiagoa da beste latinkeria bat: *In dubiis abstine*. Alegia, zalantzan bazaude, ez posizionatu. Badirudi, oraindik ere, ordezkari politiko askok jarrera ekidistante horri eusten diotela Hondarribian, "Alardea bizitzeko bi moduen" milonga botatzen baitute mikro bat aurrean jartzen dieten aldiro.

Eta ez da onargarria.

Joan den larunbateko eszenei begiratu, eta ezin da ikusi hor Alardea bizitzeko bi modu daudenik. Herriaren parte batek sexu-diskriminaziorik gabe desfilatu nahi du; eta herriaren beste parte bat edozertarako prest dago hori eragozteko: Ertzaintzaren erresoluzioak ez bete, desfilatzen ari direnak eta haiek agurtzen dituztenak iraindu, kazetari-
lan oztopatu, argazkilarien kamerak puskatu...

"Festa bizitzeko modu bat", gorroto-delituak kometitzea.

Hil zaitezka eta putaka tratatu zituzten Jaizkibel Konpainia parekideko kideak irailaren 8an. Beste behin ere. 22 urte horrela. Zapalkuntzak munduko erraztasun guztiak ditu, konbokatu gabeko beste manifestazioekin ez bezala, agintariak ez dutelako inolako koertzio-neurririk hartzen ultren kontra, segurtasun baldintza minimoak betetzeko baino ez bada ere.

1998an, gatazka hau piztu eta gutxira, Manic Street Preachers taldeak kanta bat argitaratu zuen. Zera zioen: "Hau onartzen baduzu, zure haurrak izango dira hurrengoak". Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentek entzungo al du abestia, ordezkari politiko gisa orain arte erakutsi ez duen ausardia maila pertsonalean ateratzeko. Zerbait okerragoa gertatu baino lehen. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



¿DE QUE HABLAS?
IZEN LAGUNA?...GENITIBOA?
...ERLAZIO ATZIZKIA?...
WHAT IS THAT!?

EUSKAL SINTAXIA
K.O!



ANALISIA



EH Bilduko Arnaldo Otegi eta EAJko Andoni Ortuzar parez pare, PSE-EEko Rafaela Romero tartean.

Hainbat galdera sartzean



Mikel Asurmendi
@masurmendi

La rentrée terminoa gero eta erabilia goa da Euskal Herrian. Iparraldean oso arrunta da, euskaldunek "sartzea" erabili ohi dute. Hitz "arrotz-arraro" samarra izan arren, emeki-emeki oihartzun eta lekua hartzen ari da Hegoaldean ere.

Sartzea arrunt erabilia da Iparraldean eskolarako itzulera adierazteko. Konparazioan, Seaska Ikastolaren inguruan, bai iaz, bai aurten, eta erran dezagun beti eta betiko, euskaldunen eskola sartzea zalapartatsua izanen da. Eta bai. Adibidez, aurten, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioak Frantziako Hezkuntza Ministerioari hogeita bost irakasle lanpostu berri eskatu dizkio, alta, horietatik bost baino ez dizkio onartu. Afera eternoa da. Nola egingen dute ikastolek Frantziako Estatuak euskal irakaskuntza itotzeko asmotik demokrazia fariseuko honetan salbu jalgitzeko?

Badira ere, literaturaren edota zinemaren inguruko sartzeak. Horiek Frantzia gehiago Espainian baino. Nork bere jitea. Badago ere sartze politikoa, Frantzia biziki sonatua, gero eta sonatuagoa ere Espainian. Euskal Herrian gero eta entzutetsuagoak dira sartze politikoa, Iparraldean nahiz Hegoaldean.

Frantziako Estatuan, adibiderako, Emmanuel Macron presidentearen eta lehen

ministro Édouard Philippearen Gobernuak Irabazien Zerga ordaintzeko sistema berria indarrean jarriko du 2019ko urtarri-laz geroztik. *Le prélèvement à la source de l'impôt sur le revenu* edo Irabazien Zergaren ordainketa diru iturritik kobratzen den unean ordaindu beharko dugu. Soldapekoa bazara zure nagusiak egingen du, eta jubilatua bazara, Erretreta Kutxak. Langile autonomo edo laboraria bazara administrazio fiskalaren bitartez egingen duzu. Galdera: nola ordainduko dugu mugaz gaindiko langileok, *transfrontaliér(e)s* deituek, jatorrizko erarako zerga?

Sartzea zalapartatsua ari da izaten Katalunian ere. Pedro Sánchez Espainiako presidenteak onartu du katalan gehienek eskatutako erreferenduma. Alabaina, Espainian zaharrak berri dira kurto politikoaren hasieran, erreferenduma ez baita katalanek Kataluniako Errepublika eraiki ote dezaketen ebazteko, ez horixe. Erreferenduma izatekotan, Espainiako Erresuman segitzeko izanen da. "Bai" ala "Bai". Horretarako galdera egin behar al da? Hori lotsa! Francoren gorpuzkinak!

EAEn, EAJ eta EH Bilduren arteko ezkontza, mugatua ageri da berriz ere. Zertarako euren arteko eztei-bidaia, Euskal Herria Burujabera joan ahal izateko ez bada? Betiko galderak. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Ondare publikoa berreskuratu



Juan Mari Arregi

Espainiako Gobernuak publiko egingo du Eliza Katolikoak 1998tik immatrikulatutako ondarearen zerrenda ofizial osoa, nahiz eta hobe litzatekeen 1939tik aurrerakoa egitea. Eliza bere ondasunak egiazta-tzetik salbuetsita egon da 1946tik 2015era arte. Nahikoa zen gotzainak balekatzat ematea. Beraz, ondasun publiko eta pribatuaren bereganatze masiboa zein izan den ezagutuko dugu orain. Baina jadanik badakigu immatrikulazio horiek milaka erai-kin eta lur -kasu askotan lur komun-nalak- jasotzen dituztela: zenbaiten arabera, Espainiako Estatu osoan 40.000 eta 60.000 artean dira Elizaren ondare zerrenda handiari gehitu zaizkionak; estatuko BPGren %2 izan liteke hori, PWC aholkularitzaren arabera.

Hego Euskal Herrian ondare publikoaren aldeko herri ekimenak sortu dira, Nafarroako Ondarearen Babeserako Plataformaren eta zenbait erakunderen partetik -Gasteizko eta Iruñeko legebiltzarretan-. Ekimen horiei esker badakigu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 505 ondare immatrikulatu direla gutxienez epe horretan, eta Nafarroan 1.087. Denera 1.592 ondare erregistratu ditu Elizak -udal-erri bakoitzeko hiru baino gehiago dira-. Horietako asko tenplu erlijiosoak eta ermitak dira, baina badaude baita ere orubeak, lursailak, plazak, frontoiak, futbol zelaiak, hilerriak, aurrak, pinudiak, olibariak...

Honek guztiak erakusten du Eliza, denboran barrena, kasu askotan modu ilegítimoan ondare pribatu eta publikoaren jabe egin dela. Garaia da behingoz argitzeko zer gertatu den; eta zerrenda ofizial hori publiko egin ondotik, Elizak lan egin beharko luke inongo legimitaterik gabe kendutako ondarea itzultzen hasteko. Bete dezala bere mandamentuekin. Zazpigarrenak halaxe dio: "Ez duzu ostuko".



NOAUA

Erraustegiaren aurkako giza katea Kontxan

DONOSTIA. Erraustegiaren aurka agertu, osasuna bermatzea galdegin eta alternatibak badirela gogorarazteko giza kate luze eta jendetsua osatu zuten Kontxa hondartzan, estropaden bigarren eta azken jardunaldi egunean. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Erraustetaren Aurkako Herri Plataformaren Koordinakundeak eta Donostia Bizirik herri plataformak antolatu zuten protesta ekintza eta hainbat sindikatuk, alderdi politikok eta talde ekologistek egin zuten bat. Ehunka lagun bildu ziren.

Negoziaketa eta protestei eusten die Seaskak

Argia

Seaskak behar eta eskatu duen irakasle kopuruaren aurrean, entzungor jarraitzen du Frantziako Gobernuak. Hori dela-eta, Jean-Michel Blanquer Hezkuntza ministroak Pauera egindako bisita aprobetxatuz bertan manifestazioa egin zuten herri-tarrek, eta Seaskaren aldarrikapenak zuzenean egin zizkioten ministroari berari.

Negoziaketa

Solasaldien biderei eusten dio Seaskak, baina Bordeleko Akademiako errektore Olivier Dugriperekin izandako azken bilkurak ez zuen emaitzarik eman. Eskakizuna Hezkuntza Ministerioari helarazteko esan zien ikastolei.

Mobilizazioak

Paraleloki, mobilizatzen jarraituko duela iragarri du Seaskak. Ipar Euskal Herriko erakundeei engaia-mendua ere eskatu die. Gero eta ikasle gehiago dituen arren, irakasle kopurua emendatzeko trabak aurkitzen ari da ikastolen elkarteak.

Erakundeak

Instituzioen aldetik mugimendu batzuk hasi dira. Euskararen Erakunde Publikoa aztertzen ari da Seaskari aparteko diru-laguntza ematea, erakunde horretako lehendakari Beñat Arrabitek *Berriari* baieztatu dionez.

PEDERASTIA



100.000

pertsona baino gehiagok jasan dituzte sexu abusuak Elizaren baitan munduan, ECA Global erakundearen arabera. Ikertu eta frogatutako kasuak dira horiek.

8

New Yorkeko zortzi elizbarrutietako apaizek adingabeei sexu-abusuak egin izanaren susmoak ditu hiriko fiskalburuak eta ikerketa abiatuko du.



HOMOSEXUALITATEA

Indiako Auzitegi Gorenak sexu bereko pertsonen arteko harremanak despenalizatu ditu, epai historiko batean. Bost epailez osatutako epaimahaia hartu du erabakia. Homosexuala izatea kartzelarekin zigortzen zuten lege kolonialak 160 urte zituen.



NOR

NOR Euskal Herria Antiespezista kolektiboa sortu da. Animalien askapenaren aldeko kolektiboak dioenez, antiespezista izateaz gain feminista, antikapitalista eta euskaltzalea da. "Jarrera politiko horiek gure jardun antiespezistan islatzen saiatzen gara".



GURUTZE POLEMIKOA

Mendiako bizilagunek Olarizuko gurutzea kentzearen alde bozkatu dute. Asmo erlijiosoekin eraiki arren, erregimen frankistak zentzu politikoa eman zion gurutzeari. Gasteizko Udalak dio ez duela baimenik emango gurutzea eraisteko.

Samir Amin hil da, periferiako herrien deskonexioaren teorikoa



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Samir Amin itzali berri da Parisen 87 urterekin. Kairon 1931n sortua, gaztetatik burututako lan teoriko, akademiko eta ekintzaileetan jarrai daitezke munduaren XX. mendearen bigarren erdiko garapen kontraesankorraren arrastoak. Hirugarren Munduko herrien askapen mugimenduak sustatu zituen, aske bizirauteko *deskonexioa* proposatu zien inperialismo kapitalistarekiko, eta azken hamarkadotan mugimendu altermundialisten pentsalari nagusietako bat izan da.

Joan den maiatzean Pekinen zen Iraunkortasunerako Unibertsitate Globalean hitzaldia ematen eta internetez ikus-entzun daiteke orduan Sit Tsui Jade irakasleak maisuari egindako ordubeteko elkarriketa, zigarroa eskuan, begirada erne eta mintzoa zorrotz. Hamazazpi urterekin Egiptoko alderdi komunista txiki batean engaiatu zen Samir Aminek borrokalari jarraitu du ondo aguretuta hil arte.

Ama Kairoko aristokrazia koptoko emakumea, aita irakasle frantsesa, Parisera joanda ikasi zituen politika, estatistika eta ekonomia. II. Mundu Gerra ostean, Ekialde Hurbileko komunista eta ezkertiar guztiak bezala Amin ere Bandungek inarrosi zuen.

Mugimendu anticolonialistak beronean zeudenean, 1955ean, Bandungeko Batzarra burutu zuten Asia eta Afrikako 29 herrialde ez lerrokatuk Indonesiako Bandung hirian. Bertan ziren lider independentista garrantzitsuenak: Indiako Nerhu, Egiptoko Nasser, Indonesiako Sukarno, eta abar.

“Bandungen –aitortuko zuen beranduago Aminek– erradikalizatu zen Nasser. Ulertu zuen ameskeria zela Egipto atzerriko kapitalek garatuko zutela sinestea. Uste dut Zou Enlai txinatarrak zerikusi handia izan zuela haren heziketa politikoan. Aro berri bat ireki zuen Bandungek. Gure ustez ezinezkoa zena posible zela agertu baitzen: burgesia nazionalen gidatutako erregimen nazionalista haiek, klase herrikoiek gidatuak ez izan arren, klase herrikoien kontra ez

egonik, izan zitezkeela anti-inperialistak eta iraultzaileak. Espero ez genuen arren, ausartu egin ziren”.

Egia da hoge urteren buruan arnasa galdu zuela Bandungek, baina askoz beranduago ere haren izpirituak bizirik jarraitu du Samir Aminen ustean, bai Hego Amerikak ezagutu dituen aginte aurrerazale eta anti-inperialistetan, eta baita mundu osoan gorpuztu diren mugimendu altermundialistetan ere.

Jean-Marie Harribey ekonomialariak azpimarratu duenez, Samir Amin lehen mailako teorikoa izan da. Zango bat Europan eta bestea periferiako herrialdeetan, egokitu zitzaion bizitzera frantsesez *Trente Glorieuses* deitzen dituzten hiru hamarkada loriatsuetan, herrialde garatuak 1946tik 1975era –II. Mundu Gerratik petrolioaren lehen krisi handira bitartean– gozatu zuten hazkunde ekonomiko eta bizi-baldintzen hobekuntza aldian.

Intelektual marxista sorta batek hartu zuen 60ko hamarkadan inperialismoaren analisiak berritzeko lana. Argitara atera zuten kolonietan eta teorian independenteak ziren erregimen neokolonial askotan Mendebaldeko potentziek lehengaiak nola lapurtzen zituzten, mundu mailako espezializazio katean bazterrera kondenatuz.

Samir Aminek, marxismoaz gain estrukturalismoaren iturritik edana izaki, fintasun bereziz heldu zion mundu mailako ondasun metaketaren teoria osatzeko lanari. Emaizta liburu mitiko batean bilduko zuen 1973an: *Berdin-*



tasunik gabeko garapena (*Le développement inégal*).

Aminek ukatzen zuen herrialde txiroen arazoa zenik “garapenean atzeratuta” egotea; aldiz, erakutsi zuen herrialde ez-garatu deituak ez direla inolaz ere Hirugarren Mundu –orduan deitzen zitzaien bezala– baizik eta mundu mailako truke sistema berdintasunik gabean zeuzkatela lotuta, bortxaz integratuak zentroa eta periferia ondo banatuta dauzkan kapitalismo global batean.

Orduan bezala gaur kapitala lehengai merkeez gain eskulan merke bila dabil eta horrek hedatzen du munduko periferiak nozitzea azpigarapena, garapen orokorrean itsatsia. “Bestela esanda –dio Harribeyk– Aminek eguneratu eta zehaztu egin zuen Marxek definitutako *balioaren legea*”.

Langileei eta herriei deika

1985ean argitara eman zuen Aminek *La déconnexion*, aitzindaria hau ere. Justu orduan ari ziren Nazioarteko Diru Funtza, Munduko Bankua eta AEBetako Ogasuna planeta osoan ordena neoliberala indartzen *Washingtongo Kontsentua* deituaren bidez.

Deskonexioaren tesiarekin Aminek herrialde periferikoei proposatzen zien beren ondasunen barruko metaketa kontrolatzea, era burujabeago batean garatu ahal izateko, zentroko eliteen eta multinazionalen interes ekonomiko, sozial eta kulturalen mende geratu gabe.



Rosa Luxemburg Stiftungek zabaldutako argazkian, Samir Amin 2012ko udan hitzaldia ematen Zageboko Subversive Festival ekitaldian: "Uneotan bizi dugu 'kapitalismoaren udazkena', nahiz eta hori gehiago sakontzen ez dugun ikusi 'herrien udaberri' baten eta perspektiba sozialista baten indartzea. Horra zein iraupen laburra izan duen Occupy Wall Street mugimenduak kapitalismoaren gotorlekuaren bihotzean".

Herrialdeok beren produkzio indarrak bideratu behar lituzkete bertako herri-errentzako kontsumo gaiak ekoiztera, ez zentroko jendeentzako edo haien eskumakilarak diren periferiako eliteentzako osagaiak eta luxuzko trasteak.

Javier Suazo hondurastarrak *Alai* hedabidean nabarmendu du Aminen deskonexio proposamenaren arrasto asko geratu direla batik bat Hego Amerikan: UNASUR, ALBA eta CELAC erakundeak, BRICS kontzeptua bera (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikak osatutako taldea), Brasilgo Lula presidentearekin elkarlanean bultzatu zuen Munduko Gizarte Foroa...

Hil baino egun gutxi lehenago, *Afrique-Asie* hedabide historikoan plazaratu zuen bere testamentu politikoa: "*L'indispensable reconstruction de l'Internationale des travailleurs et des peuples*".

Azken 30 urteotan kapitalismo globalak eragindako erabateko zentralizazioa deskribatzetik hasten da, azalduz nola oligarkiak soka motzetik lotu dituen alderdi tradizionalak oro, eskuineko zein ezkerreko, sindikatuak eta gizarte zibilaren erakundeak. "Oligarkiak aginte politiko osoa dauka eskuetan eta menderatu duten *eliza mediatikoak* herritarren iritziak despolitizatzeke beharrezko den desinformazioa ekoizten du".

Indar herrikoiek sistemari ematen dizkieten erantzunen ahuleziak zehaztasunez zerrendatu ostean, Aminek ezkertiarren Internazional berri baten beharra aldarrikatu du: "Krisi sistemikoan sartuta dagoen kapitalismotik irteten behar dugu, ez kapitalismoaren krisitik irteten saiatu". Berdin European ere: "*Europa aleman* hau oligarkia germanikoaren morroi dago, Greziaren kri-

sian ikusi dugunez. Europa hau ez da bideragarria eta bere barnetik lehertzea dagoeneko abian da".

Samir Aminek agurrean bi etorkizun posible erakusten ditu. Bat, zibilizazioaren gainbehera gauzei bere horretan jarraitzen utziz gero. "Aginteez daukaten suntsitze ahalmenaz (suntsiketa ekologikoa eta militarra) gerta liteke Marxek aipatu zuena gertatzea, borrokek suntsitzea alde guztiak, arriskua benetakoa da. Bigarren aukerak langileen eta herrien fronte internazionalista baten esku hartze argi eta antolatua eskatzen du. (...) Burkideok, deika dauzkagu Historia eta gure kontzientzia. Edo elkartuta antolatzen dugu Iraultza Sozialista Berria (zaharraren lezioak ondo ikasita) edo bizi beharko dugu kaosa, basakeria, egoismoa eta gure Lurraren suntsiketa ikusiko ditugun mundu batean". ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Afrikan oso zuria sentitzen zara, nahi eta nahi ez pribilegiatu»

Raúl de la Fuente
Infernuetarako bidaiaria

Hogei film dokumentaletan munduan dauden infernu lazgarrienak erakutsi dizkigu. Orain, bera bezala Afrikako sufrimenduaren lekuko izan zen Ryszard Kapuściński idazle poloniarrari buruzko film berezia emango du Donostiako Zinemaldian eta ikusleek ematen duten Donostia Hiria Publikoaren Sarirako lehiatuko da.

Testua: Reyes Ilintxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Zer egiten du kazetariak kameraren atzean?

Txikitan argazki makina oparitu zidaten eta gustua hartu nion. Komunikazio Fakultatean sartu nintzenean ez neukan oso garbi zer egin nahi nuen, baina praktikak hasi eta berehala konturatu nintzen kameraren atzean aritu nahi nuela. Besteek bilatzen zuten kameraren aurrean egotea, kazetari onek bezala, baina nik atzean nahiago. Agian zinemagintza ikasi behar nuen, baina tira. Formakuntza humanistikoagoa jaso nuen tekniko baina, eta ez naiz damutzen.

Ryszard Kapuściński, beste kazetari baten inguruko lana aurkeztuko duzu Donostiako Zinemaldian. Nolako filma da?

Dokumentalaren mugak gainditzen ditu. Animazio filma da, irudi dokumentala, baina irudi errealek tartekatzen ditu. Lengoia berri bat sortu nahi genuen. Film bakarra egin nahi nuen bi genero narratiboekin. Ez genuen Kapuścińskiri buruzko dokumental hutsa egin nahi, baizik eta ikuslea haren kopilotu bihurtu bere jeepean Angolako gerran.

Zergatik Kapuściński?

Betidanik markatu nau. Bere liburu guztiak irakurri ditut eta berak animatu ninduen Afrikara bidaiatzera. Beti izan da lotura moduko bat gure artean. Txundituta utzi nau beti. Idazlea da, ez gerra kazetaria, eta askok diote XX. mendeko kronikari onena izan dela. Oso poetikoa eta sentiberatasun han-

Raúl de la Fuente

Iruña, 1974

Kazetaria, zinema zuzendaria eta gidoigilea. Zinema dokumentalean egin du ibilbide nagusia. Lehen filma *Nomadak Tx* (2006) izan zen. 2014an Goya saria irabazi zuen *Minerita* lanarekin. 2015ean, dokumental labor onenarentzako Oscar saria jasotzeko hautagai izan zen *Minerita*. Donostiako Zinemaldian emango du *Un día más con vida* (Beste egun bat bizirik) Damian Nenow animatzaile poloniarrarekin batera. 1975ean, Angolan, Ryszard Kapuścińskiren bizipenak biltzen ditu, animazioa eta irudi errealek josiz.





Boliviako Uyuni gatz-lautadan.



"Minerita" filman protagonista diren meatzari boliviarekin.

dikoa zen, Afrika ederki ongi ezagutzen zuen. Izugarria da nola kontatu zuen Angolaren desegituratzea, 1975ean Portugaldik banatzea lortu zuenean. Deskribatzen du nola Luanda hiria [Angolako hiriburua] eskeleto huts gelditzen den kolonoak Portugalera itzultzen direnean, nola eramaten zituzten bere gauza guztiak kaira, egurrezko kutxetan, itsasontzietan sartzeko... Beti imajinatu dut hori eleberri grafiko animatu baten gisa.

Nomadak Tx filma bukatutakoan, Pablo Iraburu, Harkaitz Martinez de San Vicente, Igor Otxoa zuzendarikideak eta ni mundu osoan zehar ibili ginen jaialdiz jaialdi. Hura eta gero irrikan nengo beste film luze bat egiteko. Hamar urte luze aritu g ara, baina hemen dago azkenean.

Cannesko Jaialdian estreinatu zenuten *Un día más con vida* filma. Zer moduz?

Hamar urte luzatu den lan honentzat estreinatzeko izan zitekeen tokirik onena izan da. Atal ofizialean lehiatu ginen eta historikoa izan da. Ikusleen eta kritikarien harrera ezin hobea izan da. Thierry Fremaux jaialdiko zuzendariak asko gustatu zitzaigun zerbait esan zuen: "Ez zara pertsona bera izango film hau ikusi ondoren". Izugarria izan zen hara joatea. Zinemaldiko Perlak atal berezian egotea ere izugarria izango da, beste jaialdietan lehiatu diren filmik onenak biltzen direlako.

Urriaren 26an estatu osoko zinema aretoetan estreinatuko dugu eta mundu zabaleko toki askotan ikusiko da zinemaren eta telebistan: Portugalen, Erresuma Batuan, Eskandinavian, Polonian, Belgikan, Alemanian, Txinan eta hamai-ka toki gehiagotan.

Bien bitartean dokumentalekin jarraitu duzu, ezta?

Bai, noski. Apirilean estreinatu zen *Love, Sierra Leonan* prostituzioan aritzera behartutako neskatilei buruzko dokumentala eta orain [abuztuaren bukaeran] Ugandara noa Sudanetik datozen errefuxiatuen inguruko lan bat egitera. Baditugu beste gauza batzuk Mozambiken, Sierra Leonan...

Maite dut dokumentalak egitea, baina beste formatu batzuekin bazterrak nahasten ibiltzea ere gustatzen zait. Ni neu fusio moduko bat naiz, agian horregatik izango da. Beti interesatu zait Latinoamerika, Afrika... eta generoak nahastea, hala nola fikzioa eta dokumentala, edo animazioa eta dokumentala, kasu honetan bezala.

Zer izan da *Nomadak Tx* zure ibilbidean?

Hasiera zoragarria. Egin nuen lehen lana izan zen, eta gainera film luzea. Ideia Oreka TX-ko Harkaitz eta Igorrena eta Pablo Iraburu ekoizlearena izan zen. Haiek argi zuten zer egin nahi zuten eta ni gonbidatu ninduten parte hartzera. Txalaparta haien bizitza da

eta haiengandik sortzen den energia bildu eta neureganatu ahal izan nuen. Sinestezina izan zen: adiskide onekin joateko aukera, bidaiatzeko modua, txalaparta eta kamera baino ez, askatasun handia, denbora asko eta diru gutxirekin, ideia gutxi baina oso argiekin... Bidaia magikoak izan ziren. Pelikularen muntaketa ere zaila bezain aberasgarria izan zen. Prozesu oso organikoa, oso bizia izan zuen eta oso emaitza ona. Hoge sari inguru irabazi ditu filmak jaialdi handienetan. Horrek marka uzten dizu. Hor konturatzen zara mota horretako lanak egin nahi dituzula.

Nondik nora ibili zineten eta nolako erantzuna jaso zenuten?

Indian, Marokon, Laponian, Mongolian... ibili ginen grabatzen. Hangoek pentsatuko zuten erotuta geundela. Txalaparta arreta deitzen duen tresna da, ezezaguna, eta gainera soinu ozen eta indartsua ateratzen du. Harkaitzek eta Igorrek gorputz osoarekin jotzen dute eta hori ere oso deigarria da. Txalapartak ate piloa irekitzen du. Indian bereziki haurrak gelditzen ziren txundituta guri begira, baina izan zen beselakorik ere: samien herrian meza-rik ateratzen ari zirela jotzen hasi eta inork ez zuen batere interesik erakutsi. Egia esan, 30 gradu zero azpitik egiten zuen eta agian horregatik ere izango zen.

Sierra Leonako Freetown hiriburuan lanean.



Angolan, 2011ko grabaketa lanean.



Minerita dokumentala egiteko ideia nola sortu zitzaizun?

Ander Izagirrereren testua eta Dani Burguiren argazkiak biltzen dituen erreportajea irakurri nuenean, hara joateko eta Abigail neska meatzaria ezagutzeko beharra sentitu nuen. Boliviako Potosiko Cerro Rico izan da inoiz ikusi dudana bizileku latz eta gogorrena, emakumeentzat bereziki. Muturreko bortizkeria etengabea bizi dira, bizimoduagatik eta gizonezko meatzariak haiek bortxatzeko eta jotzeko eskubidea dutela uste dutelako. Gordintasun eta sufrimendu horren lekuko izan nintzen. Txarrena da errealtate horiek ez direla erraz aldatzen. Irtenbide bakarra da handik ateratzea, baina ia ezinezkoa da haien zatitza. Frustrazio erabatekoa. Zentzu guztietan oso filmatze gogorra izan zen eta gainera lankide batek istripua izan eta hilzorian egon zen. Oso hunkituta itzuli nintzen.

Harremana mantendu duzue Abigail, Ivonne eta Lucía meatzariekin?

Bai. Abigail La Paz hiriburura joan zen formatzera polizia izateko asmoz, baina amarengana itzuli da muinora. Ez zuen bakarrik utzi nahi, nonbait. Ivonne ere han dago. Gainera, anaia batek istripua izan eta besoa eta hanka galdu zituen. Azken urteotan egoerak okerrera egin du.

Haien sufrimenduak nola eragiten dizu zuri?

Tarteka gaizki pasatzen dut, baina oro har nahiko ongi daramadala uste dut. Sierra Leonan haurrak kartzela barruan eta neskatoak kalean prostituzioan ikustea arras mingarria izan da. Ideia horiek buru barrenean kolpeka izan ditut gauetan. Ezin duzu saihestu pertsona horiengan pentsatzea, jakinda gainera ezin duzula ia ezer egin.

Besteak beste salestarrentzat eta Medicus Mundirentzat egiten duzu lan.

Salestarrekin badut oso harreman polita duela hamar urtez geroztik eta egin ditugu jada beste horrenbeste dokumental haien zatitza. Konfiantza handia dugu eta haien bidez ikaragarritzko egoerak ezagutu ahal izan ditut: Kolonbiako haur soldaduak, Sierra Leonan prostituzioan aritzen diren neskatilak, Togon sorginkeriaz akusatutako neskatoak, Angolako eta Haitiko kaleko haurrak, eta Boli Kostan diren gerra errefuxiatuak, besteak beste. Medicus Mundirekin bi dokumental egin ditugu Mozambiken, *La fiebre del oro* eta *A luta continua*.

Infernu horien inguruko informazioa zabaltzeak balio du gauzak aldatzeko?

Bai. Zerbait aldatzeko lehenbizi ezagutu egin behar da. Niretzat pribilegio bat izan da pertsona horiei ahotsa eman ahal izatea. Haien bozgorailua naiz. Bi-

zirik irauteko jendearen borroka-kontakizunak interesatzen zaizkit. Oso pozgarria da ikustea zure lanek egoera batzuk aldatzeko balio dutela. *Live* dokumentala egin ondoren, adibidez, Sierra Leonako Gobernuak salestarren lanaren berri izan zuen, txalotu zuen, eta orain lanean hasi da haurren prostituzio egoera lazgarria amai dadin. Gauzak aldatzeko ahalmena duten eragileengana iristea eta mugiaraztea lortu da. Hor dago koska.

Nola lantzen dituzu dokumentalak?

Dokumentazioa da aurrenekoa. Zenbat eta gehiago prestatu, hainbat hobe. El-karrizketa asko egiten dugu Skype bidez joan aurretik, esate baterako. Ideia gutxi baina argiak eraman ohi ditut. Pertsona irekia naiz eta jendea ezagu-

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

tzea gustatzen zait. Jende xumearekin elkartu eta haien istorioak entzun. Miresten ditut pertsona horiek. Nola bizi diren, munduko hainbat tokitan nola borrokatzen duten ikustean ez dut pena sentitzen, miresmena baizik. Haiek dira protagonistak, heroiak dokumental hauetan, eta ni horrela ongi sentitzen naiz.

Erraza da kamera batekin toki horietan ibiltzea?

Afrikan oso zuria sentitzen zara eta nahi eta nahi ez pribilegio egoeran sentitzen zara lehen munduan jaioetakoa izateagatik. Pribilegio horrek behartzen du harreman guztiak desorekatuak izatera beti. Egiten duzuna egiten duzula, zuk beti aukera duzu hara joateko, han egunero jateko eta zure etxera itzultzeko. Imajinatzen dut batzuetan inbidiaz begiratuko gaitzuztela, batez ere nahi dugun tokira joan gaitzezkeelako. Gorrotoa ere sentitzen dute batzuetan.

Haitira lurrikararen ondoren joan ginen dokumental batzuk egitera, Nazio Batuen Erakunde lan egiten duen Alejandro Pacheco donostiarraren ekimenez. Oso pertsona azkarra eta ona da, eta dokumentalak ikuspuntu positibotik egiteko gogoia zuen, hango bizi istorioak erakusteko. *Nomadak Tx* ikusi zuen eta asko gustatu zitzaion. Bi hilabete hiru film eder egin genituen, baina presioak eta irainak jasan behar izan genituen. Hainbeste jende joan da irudi lazgarrien bila, orain nolabaiteko gorrotoa diote kameradun zuriari.

Errefuxiatu eta migratzaileen gaia pil-pilean dago.

Ikaratu egiten nau errealitateak. Egun-karia ikusteak tu egiteko gogoia ematen du. Haurrak kartzela barruan ikusten ari gara AEBetako mugan, haien gurasoengandik bereizita; ehunka pertsona itotzen uzten ditugu itsasoan; adierazpen xenofoboak nonahi...

Nardagarria, ulertezina, geurekoia eta doilorra da. Nola zapaldu daiteke horrela infernutik ihesean datorren pertsona baten bizitza? Eta ez da politikari batzuen kontua soilik, jendartean ere oso zabaldua dagoen ideia da. Harro sentitzen naiz euskal herritarra izateagatik hemen sentiberatasuna, hurbiltasuna eta eskuzabaltasuna handiak baitira, beste toki askotan baino askoz handia-



Off the record: Untzitin eta Donostian

Untzitin, bere etxean, hartu gaitu Donostiako Zinemaldirako azken lanaren emanaldiaren zain eta Ugandara beste dokumental bat grabatzera abiatu aurretik. Etxe eder eta koloretsuan bere 3 urteko umetxoaren jostailu eta marrazkiak nonahi. Kanaki Films ere Untzitin dago. Untziti Amaia Ramirez ekoizlearekin batera sortu zuen ekoiztetxearen egoitzetako bat da (beste Donostian dute). Biak aritzen dira lanean mundu zabalean dauden hamaika heroi xumeren historia latzak kontatzeko.

goa. Hala ere, ikaragarria da gertatzen ari dena. Gizarte bezala lotsagarria da egiten ari garena.

Zein da zuen hurrengo lana?

Ugandako dokumentalaz gain esku artean dugu fikziozko film luze baterako proiektua. Freetown, Sierra Leonako hiriburuko Pademba izeneko kartzelaren

egoeran oinarritutako istorioa da. 300 presorentzako tokia duen presondegian gaur egun 1.900 pertsona pilatzen dira, haien artean adingabe asko. "Lurreko infernua" deitzen diote toki horri eta benetan gogorra da han ikusten dena. Hiru aldiz egon naiz eta oihuka deitzen nau. Hori da gehien hunkitu nauen tokia, Cerrro Ricorekin batera. ■

Itaka

takan antzeztu du uda honetan Tsiprasek finantza erreskatearen amaiera. Abuztuaren 21ean emandako liturgia hartan solemnitare handiz mintzatu zen *Odisea* modernoaren bukaeraz.

Greziako kontinentearen mendebaldeko kostaldean dago Itaka, itsaso jonikoan. Handik mendebaldera, mila kilometro baino gehiagora, Kastellorizo irla kokatzen da Anatolia penintsularen azpian. Txipre eta Turkiatik hurbilago egon arren, Greziako Estatuari dagokio. Kastellorizon, 2010eko apirilaren orduan lehen ministro zen Yorgos Papandreu sozialistak, Nazioarteko Moneta Funtzari laguntza finantzarioa eskatu zion, lehen erreskateari besoak irekiaz. Zortzi urteko periploaren ostean, hortxe dugu herria erreferendumeraren eraman zuen gobernuburua: bere aurreko gobernuek abiatutako erreskateen bideari zintzo jarraitu dio, Troika eta kapitalaren aginduei men eginez. Odisearen bukaera Mediterraneoren beste muturrean kokatu du eta eszenatoki gisa Homeroren Itaka hautatu izanak, maila sinbolikoan ere arauaren barruan dagoela erakutsi digu.

Azken hamarkadan greziar ekonomiak astindu bortitza jaso du: 200.000 milioi eurotik gora, neoliberalismo basatienaren neurriak aplikatzeko konpromisoaren truke. Inpaktu soziala latza izan da: langabezia tasa %16 igo da azken hamarkadan; herritarren erosteko ahalmenak hondoa jo du: Europar Batasuneko batez bestekoaren %93tik %68ra murriztu da; soldatak %30 erori dira, pobrezia egoeran bizi diren greziarren portzentajea bikoiztu egin da. Austeritate neurriek gupidarik gabe kolpatu dituzte adin tarte guztiak: 2012. urtetik hona milioi erdi gaztek herrialdetik alde egin duten bitartean,



Aiala Elorrieta Agirre

EKONOMIALARIA

@aialuski

Azken hamarkadan greziar ekonomiak astindu bortitza jaso du: 200.000 milioi eurotik gora, neoliberalismo basatienaren neurriak aplikatzeko konpromisoaren truke. Inpaktu soziala latza izan da: langabezia tasa %16 igo da azken hamarkadan; herritarren erosteko ahalmenak hondoa jo du. Europar Batasuneko batez bestekoaren %93tik %68ra murriztu da; soldatak %30 erori dira

pentsioak hamabi aldiz murriztu dira.

Kostalderik luzeena duen 13. herrialdea da Grezia, 1.400 irla ditu eta Mediterraneo itsasoan kokagune estrategikoa du. Ez da kasualitatea, hirugarren erreskateak abian jarri duen pribatizazio prozesu erraldoiaren barruan herrialdeko dozena bat porturen

salmenta aurreikusi izana. Honezkero esku pribatuetara pasatu dira portu nagusietako bi: Atenaseko Pireo eta Salonikako portua. Lehen, Txinako enpresa publiko baten esku geratu da (COSCO) eta bigarrena SEGT enpresa-taldearen esku –bertan nagusi dira diru-funts alemanak–. Datorren udazkenean itxiko dute Alexandroupoliseko portuaren salmenta: Turkiarekin duen lur mugatik oso gertu, gas naturalaren banaketaren mapan kokapen tentagarria du honek ere.

Pireoko portua Greziako garrantzitsuen izatearekin batera Mediterraneo handienetakoa ere bada. Bertan 1.500 pertsona baino gehiagok egiten dute lan. Krisia dela eta haien soldatak 1.500 eurotik 600 eurora jaitsi zirenez geroztik, ez dute igoerarik ikusi. Portua COSCO enpresaren esku dagoenetik gainera, lan eta osasun baldintzak geroz eta okerragoak dira. Azpikontratazio sistema konplexua inposatzen ari da: geroz eta langile gutxiago kontratatzen dute jardunaldi osoan, eta geroz gehiago azpikontratatzeko dituzte lana aurrera ateratzeko. Trebatu gabeko langileak azpikontratatzeko dira baina enpresa ez da segurtasun arriskuen erantzule egiten. Bertako langileek ondotxo dakite Pireon gertatzen dena ez dela hutsala: “Pireon gertatzen dena, Europa osoan hedatuko den erregimen prekarioaren hastapena baino ez da”.

Itakako ikuskizunean Greziak bere patua bereganatu duela esan zuen Tsiprasek. Urteetako odolustearen ostean, zein patu geratzen zaio herriari? Europako teknokratek txalo eta laudorio artean hartu dute, baina agerraldi honek erakusten du erabat salduta dagoela Tsipras.

Zer xuxurlatu ote diote sirenen kantuek? ■

Gaztetxearen gainean



Enrike Diez de
Ultzurrun Sagalá
ITZULTZAILEA

Aldaketaren aroa hastearekin batera berpizten hasi zen okupazioaren mugimendua Iruñean, UPNkoen azken urteetan ia hilik egon ondoren. Kontua da hiru urteotan inoiz ez bezalako bideak zabaldu eta sos ederrak gastatu dituela Iruñeko Udalak udal jabetzapeko tokiak gazteei nahiz gizarte taldeei uzteko (Mendillo-rin, Txantrean). Iruñeko Alde Zaharrean bertan ere, ia hiru urteko prozesu ireki eta luzearen ondoren, Plazara ekimena gauzatu da, karrika Nagusiko Cruzat jauregi handia moldatzeko eta prozesuan aritutako taldeei uzteko. Iruñeko okupazioa egin duen jendeak, ordea, ez zuen prozesuan parte hartu nahi izan. Lehen okupazioa, dena den, aldagaterekin batera gertatu zen, ez kasualitatez Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko eraikin batean. Egun haietan, EH Bilduk bazekien gazte talde horiek zerbait okupatu nahi zutela, eta Iruñeko alkatetzak udaltzainak igorri zituen udal jabetzapeko eraikin hutsak zaintzeko. Okupen asmoak ikusirik, Udalak berak bertze bide bat urratu zuen jende horri tokia uzteko, gazteen aisia udal eskumena baita, eta eraikin bat laga zien Alde Zaharraren ondoan. Gazte horiek, ordea, zenbait obra baimenik gabe egin, eta bide hori zapuztu zen. Bitartean, bertze gazte talde batek Sarasate pasealekuko eraikin pribatu bat okupatu zuen. Iruñeko udaltzainek okupak aterrarazi zituzten, guardiako epaileak agindurik,

eta istiluak eta zaurituak izan ziren, baita atxilotuak ere. Udaltzaingoa EH Bilduren eskuetan zegoen. Ondotik, Nabarreriako eraikin hutsaren okupazioa gertatu zen, UPNren agindupeko Nafarroako Gobernuak (denon diruarekin) aspaldian 1.700.000 eurotan erosia. Aipatu behar da, segurtasun arloko txosten batean oinarriturik, Iruñeko alkateak, zer gerta ere, ebazpen bat eman zuela joan den maiatzean gaztetxeko ekitaldiak debekatzeko; udaltzainei, gainera, agindua eman zien eraikin okupatu horretako ekitaldi oro eragozteko. Aginduak indarrean dirau, baina bistan denez, ez da betetzen. Nafarroako Gobernuak, ordea, Barne kontseilariak proposaturik, auzibidea aukeratu eta, azkenean, epaileak agindurik, foruzainak bidali zituen. Orain, eskuindarrak arras kontent, itxaropen oro galdua baitzuten heldu den urteko hauteskundeetarako, eta gaztetxeari sekulako etekina ateratu nahi diote. Beraz, aldagaterearen aldeko indarrek gogotik egin beharko dute lana elkarren arteko konfiantza berreskuratzeko eta gaztetxearen aferari aterabide bat aurkitzeko. Zaila da, ordea, aldagaterearen barneko indarren bat bera ere gaztetxea erabiltzen ari baita Nafarroako Gobernuak higatzeko. Gauzak horrela, gaztetxe baten indarrak baliaturik, UPN itzuli, Maravillas hustu, eta okupazioaren mugimendua ia hilik geldituko da urte batzuetarako. ■

Usoei begira



Edu Zelaieta Anta
IRAKASLEA ETA DAZLEA

Lehen aldiz balitz bezala begiratzea omen da kontua. Hain da zaila, baina, biziaren lau-garren hamarkadan sartuta! Udan oparitu dizuten John Bergerren liburuak lagundu dizu biluzte horretan. Eta, batez ere, enperadoreen jantziak ongi bereizten ez dituzten hamar urteko semearen begi zoliek. Azken asteotan egin dituen –dituzuen– behaketen artean, hiriko usoak hartu dituzue hizpide behin baino gehiagotan. Ahantzixea zenuen mundu bat berreskuratu duzu zuk (zenbat uso zauritu eraman zenituen txikitan gurasoen etxera sendatzeko asmoz?), berak mundua deskubritzen jarraitu bidenabar.

Ohi den gisan, galdera berriak ekarri dituzte behaketa horiek: zer gertatu zaio uso horri hankabakarra izateko, aita? Zergatik ezin du horrek hegan egin normal? Uso zaurituak etxera eramaten zenituenen, zer esaten zizuten aitona-amonek? Usoak ere familiak bizi dira, gu bezala? Denetarikoak izan dira erantzunak, zalantzak, isiluneak eta interneteko bilaketa azkarak.

Bergerri irakurri diozu animaliak behatzea ariketa atabikoa dela. Animaliei begira, edozein izanik ere, geure buruaz hitz egin dezakegulako. ■

Ghetto-ikastetxeen egunerokoa

Maila sozioekonomiko baxuko ikasleak ikastetxe jakinetan kontzentratzeko joera gero eta handiagoa da Euskal Herrian; datuek argi diote. Alegia, pobreak –horietako ugari ijitoak eta jatorri migratzailea dutenak– aparteko eskoletan pilatzen ditugula, horrek haientzat eta gainerakoentzat dituen ondorioekin. Zein da ikastetxe horietako errealitatea, zeintzuk eguneroko behar, aldarrikapen eta pozak?



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

“Eskola zaila da gurea, bai, baina nik ez dut beste inongo eskolatan aritu nahi”, dio Gasteizko Miguel de Cervantes ikastetxeko zuzendari Juanan Garcíak. 350 ikasle ditu Miguel de Cervantesek, %90ak beka jasotzen du eta gizarte zerbitzuek artaturiko familien kopurua handia da. Eta eskola zaila da, adibidez, ikasleen mugikortasuna handia delako: ohikoa da ikasturtea hasita ikasle berriak etortzea edo ikasleek eskola uztea –ekonomiagatik gurasoek etxez, auzoz, herriz aldatu behar izan dutelako, esaterako–, eta ikaslearen heziketan eta taldearen erritmoan eragina du horrek.

“Faktore afektiboa ere hor dago”, azpimarratu du Garcíak, hainbatek hutsune emozionalak dituelako. Ikasle batzuek bizkar gainean daramaten zama ez baita makala: “Kontatzen dizkizute pasatakoak, edo gurasoek jasandakoak, eta pentsatzen duzu, gertatuak gertatu hemen daude egunero, eskolan, eta asko da hori”, dio Ima Ortega irakasleak. Gasteizko Angel Ganivet ikastetxean egiten du lan eta bertako 700-800 ikasleetatik gehientsuenak baliabide ekonomiko urriko familietan bizi dira. “Ume batzuek ekainean negar egiten dute,

oporretara doazelako –kontatu digu–. Haietako askoren gurasoek lanean jarraitzen dute umearen oporraldi osoan, eta umeek aukera gutxi dute aisialdirako”. “Guri –gaineratu du Garcíak– ikasle batek behin esan zigun ez zuela oporrik nahi, oporretan tripako mina zuelako”. Alegia, gosea pasatzen zuelako, eskola garaian doan bazkaldu baitezakete, bekei esker.

Zer da orri-markatzaile bat?

Ibilbide akademikoan ere, eragina du gurasoen maila sozioekonomiko eta kulturalak. “Lehengoan, Lehenengo mailako gelan (6-7 urteko haurrak) irakurtzen hasiak direla-eta, orri-markatzaile bat egin genuen –azaldu digu Ortégak–. Bat-batean konturatu nintzen ikasgelaren erdiak ez zekiela zer zen orri-markatzailea. Zergatik? Etxean ez dutelako libururik. Gero proba diagnostiko bera egingo diegu Euskal Herriko ikasle guztiei, baina egoera ez da konparagarria”.

Bestelako ikuspuntua eman digu Imanol Martinezek: “Gure esperientzia da ikaslearen egoera baldintzatzen duena ez dela hainbeste egoera sozioekonomikoa, gurasoek eskolarekiko eta ikas-

tearekiko duten jarrera baizik. Ikasleen jarrera eta moduetan (baita emaitzetan ere) sekulako aldaketa ikusi dugu, gurasoak ikasketa prozesuan parte hartzen hasi direnean. Guretzat hori da gakoa. Zer gertatzen da? Sarri, profil sozioekonomiko baxuko ikastetxeetan irakasleek, gurasoek, ikasleek eurek... apenas dutela espektatibarik”. Bilboko Elejabarri ikastetxean egiten du lan Martinezek. 80 ikasle inguru ditu Elejabarri eta ikasle horien familien %100ak Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen du.

Ibilbide akademiko horretan, hizkuntza buruhauste da hainbatetan. Ima Ortégak azaldu digunez, gela batzuetan erdiak baino gehiagok lehen hizkuntza du ez euskara ez gaztelania, eta denbora eta ahalegin handiagoa behar da euskararen jabekuntzarako. “Gaztelaniaz bakarrik dakienarekin errazagoa da, nik ere hizkuntza hori badakidalako, eta nik ulertu egingo diot, eta horren arabera jokatu, nahiz eta nik hari euskaraz bakarrik hitz egin. Baina ukrainieraz edo arabieraz hitz egiten didan umea ez diot ulertzen, eta kultura talkak berak (gure keinuak, gure hitz egiteko modua... ezberdina izateak) eragiten



Gasteizko Miguel de Cervantes ikastetxe publikoak 350 ikasle hartzen ditu, ia denak baliabide sozioekonomiko urriak dituzten familietakoak. "Askok uste du gurea bezalako ikastetxeetan ikasleak gatazkatsuak direla. Inondik inora".

du hizkuntza barneratzeko zailtasunetan". Elejabarrin, duela hiru urte bilakatu ziren D ereduko ikastetxe. Martinezentzat, "funtsezkoena da ikasleek zein garrantzi ematen dioten euskarari, zein sentimendu sortzen dien euskarak egunerokoa, eta horretan zeresan handia du testuinguruak: ikusten badute ingurukoek erabili eta ikasten dutela, berdin jokatu dute". Dirua duten euskaldunak, baina, beste ikastetxe batzuetara joan ohi dira.

Zenbat esperientzia partekatze

Aipatuak aipatu, elkarrizketatuek sutuki defendatzen dute euren eskoletako aniztasuna, inplikazioa eta proiektua. Halako zentroen inguruan dauden aurreiritziak eta irudi txarra arbuizten dute. "Askok uste du gurea bezalako ikastetxeetan ikasleak gatazkatsuek direla, borrokan aritzen direla elkarren artean. Inondik inora. Giro baketsua da nagusi", adierazi du García. "Gu ghetto-eskola bat gara, eta panorama ikusita, epe laburrean behintzat gauzak ez dira aldatuko, baina ikuspegi positiboa baliatzen dugu: zenbat historia dituzten ikasle eta familia hauek, ezagutzen ez ditugunak; zenbat esperientzia partekatze... Gure ikastetxea aberatsa da oso! -dio Martinezek- Nire planteamendua erraza da: eskola bat nahi dut nire seme-alabak bertan matrikulatuko nituzkeena. Duela sei urte ez nituzke Elejabarrira eramango, gaur egun bai".

Duela sei urte iritsi zen Imanol Martinez Elejabarrira. Hiru arazo nagusi identifikatu zituzten: gurasoen eskolarekiko zuten konfiantza falta, auzoarekiko gertutasun falta, eta elkarbizitza gatazkatsua. Fokua hiru ardatz horietan jarri eta batetik gurasoen eta inguruko eragileen inplikazioa bilatu zuten ("parte-hartze hori ez izatea soilik bileretara etortzea, baizik eta benetan erabakietan, arazoetan, neurrietan... inplikatzeko"); eta bestetik, ikasleen arteko elkarbizitzan eta egoera akademikoan indarrak jarri zituzten. "Gurasoen konfiantza lortu ahala, ikasleengandik errespetua lortzen joan ginen eta modu integralean arlo akademikoari ere hobe to heldu ahal izan genion. Talde interaktiboak eta tertulia dialogikoak erabiliz, ikasleengana beste modu batean hurbiltzen gara, euren esperientziak partekatzea eta gugana irekitzea lortu dugu". Gurasoen euren eskatuta, gurasoentza-

» **JUANAN GARCÍA, IRAKASLEA:**
"Ikasle batek behin esan zigun ez zuela oporrik nahi, oporretan tripako mina zuelako. Alegia, gosea pasatzen zuelako"

» **IMANOL MARTINEZ, IRAKASLEA:**
"Gure esperientzia da ikaslearen egoera baldintzatzen duena ez dela hainbeste egoera sozioekonomikoa, gurasoen eskolarekiko eta ikastearekiko duten jarrera baizik"

» **IMA ORTEGA, IRAKASLEA:**
"Aurten gela erdia geratu zaigu barnetegira joan gabe, 120 euro ordaindu behar direlako. Eztabaida piztu da ikastetxean: bidezkoa da joatea? Aldi berean, aukera hori galdu behar dute ahal dutenek?"

» **IOSEBA APILANEZ ETA MAIKA DIAZ DE ALDA, GURASOAK:**
"Beldurrak izatea normala da, baina gero ez dira beldur errealek eta gaitortu egiten dira, aurreiritziak bezalatsu. Guk geuk geneuzkan mugak gaitortu kendu eta asko ikasi dugu"

ko klaseak ematen ere hasi ziren, besteak beste seme-alabei etxean ikasketekin lagundu ahal izateko.

Dirurik gabe, aukera gutxiago?

Eskolak antolaturiko txango eta emanaldietarako irteeretan ere badu eraginik ekonomiak. Elejabarrin esaterako, astebeteko irteerarik ezin dute egin, gurasoen ez baitute dirurik halakorik ordaintzeko; irteera motzagoak egiten dituzte. Cervantesen eta Ganivetaren ere, doako emanaldietara baino ez dituzte eramaten ikasleak. "Guk beti egin izan ditugu barnetegiak -dio Ortegak-, baina aurten gela erdia joan gabe geratu zaigu, 120 euro ordaindu behar direlako. Eta eztabaida piztu da ikastetxean: bidezkoa da joatea? Aldi berean, aukera hori galdu behar dute ahal dutenak? Hori buruz hausnartzen ari gara... Diruak baldintzatzen du irtenaldia, baina hori gero eta ikastetxe gehiagotan ari da gertatzen".

Eskolaz kanpoko jardueretan ere, luzea da pobrezia izaten itzala. Duela urte batzuk, itxaron zerrenda zegoen Miguel de Cervanteseko guraso elkarteak antolatzen zituen eskolaz kanpoko ekintzetarako: "Zeramika, marrazketa, futbito, saskibaloia... zuten aukeran, baina orain apenas dagoen ezer, ordaindu egin behar delako. Gure ikasleek ez dituzte beste ikastetxeetan dituzten aukera berberak, eta hori bidegabekeria sozial handia da. Administrazioak monitoreak eta baliabideak jarri beharko lituzke". Halakoetan, auzoaren inplikazioa funtsezkoa izan ohi da, aisialdirako eskaintza duina bermatzeko. Elejabarriren kasuan esaterako, auzoko Gaztelekuak doako jarduerak sustatzen ditu.

Baliabide gehiago, burokrazia gutxiago, aitortza eta babesa

Ikastetxe hauentzat baliabide gehiago eskatu dituzte elkarrizketatuek, baliabide humano eta materialak. Gizarte zerbizuetan eta afera sozialetan denbora asko inbertitzen baitute, baita burokrazian ere. "Ikasleek bekak kudeatzea bakarrik sekulako lana da, eta konplexua; horretan aritzen gara denok, 40 euro kobratzeko soberako burokrazian murgilduta". Aitortza aldarrikatu dute: "Babes handiagoa behar dugu. Eskola publikoan lan hau egiten ari garenak lehentasuna izan beharko ginateke administrazioarentzat -uste du Ima Ortegak-. Ez du



Ikuspegi positiboari eusten diote Elejabarrin (ezkerreko argazkian): "Zenbat historia dituzten ikasle eta familia hauek, ezagutzen ez ditugunak; zenbat esperientzia partekatzeko... Gure ikastetxea aberatsa da oso!". Babesa eta lehentasuna eskatu dizkio administrazioari Angel Ganivet eskolak (eskuineko irudian): "Ez du balio denekin berdin jokatzek; gehien behar dugunoi, gehiago dagokigu".

balio denekin berdin jokatzek; gehien behar dugunoi, gehiago dagokigu".

Irakasleen mugikortasuna amaitzea eta ikasturtero zerotik formatu beharreko ordezkioak jaso beharrean irakasleen egoera egonkortzea ere funtsezkoa deritzote. Hori bai, halako eskoletan ari-

tzeak sentsibilizazioa eta inplikazioa eskatzen dituela azpimarratu digute. "Erronka ere bada irakasleontzat, jakinik oso lan baliagarria egiten ari garela ikasle hauek bizitzan aurrera atera ahal izateko. Satisfazioa handia da, nik ez dut nire ikastetxea aldatzen", dio García.

Ate batetik batzuk sartu ahala, besteak atera

Baliabide gehiago eskatzetik harago, sakoneko konponbidea beste bat da: ghetto-eskolak desagertu eta eskola anitz eta orekatuak bermatzea, lehenengo eta bigarren mailako eskolak eta lehenengo


elhuyar
ezagutuz aldatzea

HIZTEGIRIK ba al duzu?

... eta behar al duzu?

**Elhuyarrek dauka zuk behar duzuna,
eta zuk behar duzun moduan...**

elhuyar.eus/denda



Collins Elhuyar euskara-ingelesa hiztegia
Collins.elhuyar.eus



Elhuyar euskara-gaztelania hiztegia



Dictionnaire
Elhuyar



Elhuyar
Dictionary



Elhuyar ikaslearen
hiztegia



Elhuyar sinonimoen
kutxa



hiztegiak.elhuyar.eus



Kindle-rako



Mugikorretarako



Apilanez eta Diaz de Aldaren arabera, Ramon Bajo ikastetxean euskara izan da kohesiorako ardatz, "ikasle batzuek gainera ez zutelako oraindik gaztelania lehenengo edo bigarren hizkuntza gisa finkatuta, eta euskarak batu ditu".

eta bigarren mailako ikasleak egon ez daitezten. Gaur-gaurkoz, oso urrun ikusten dute aukera hori elkarriketatuek. Errealitatea da inguruaren isla ez diren zentro artifizialak sortzen ari garela: "Ez gara auzoko ikastetxe bakarra, baina gure atetik migratzaileak eta pobreak sartzen hasi eta beste atetik ateratzen hasten dira gainerako familiak; fenomeno hori leku guztietan errepikatzen da".

Itunpekoetan, ordaindu behar izatea oztopo da familientzat. Edo lekuz kanpo sentitzen dira, eta ikasturte bakarra egiten dute bertan. Ghetto-eskola gehienak publikoak dira, eta publikoen barruan ere, familiek aintzat hartzen dute ikastetxeak egiten dien harrera eta nola tratatzen dituzten. "Zuzendaritza taldeek egiten duten apustuaren eta lanaren arabera, familien aurrean nola kokatzen diren, horrek eragina dauka".

Gisa horretako ikastetxeak dira, batzuk aipatzearen, Ordiziako Urdaneta, Andoaingo Ondarreta, Txantrea auzoko (Iruñea) García Galdeano eta Tuterako Monte San Julián. Nafarroan, A edota G hizkuntza-eredua duten zentroetan pilatu ohi dira baliabide ekonomiko gutxiako familiak.

Ikastetxeen arteko oreka bilatze aldera, administrazioari eskatzen zaizkion

neurri ugarien artean, proposamen nagusietakoa da matrikulazio bulego edo leihatila bakarra –sindikatu eta familien ordezkariak barne hartuko dituen–, matrikulazioa zentralizatu eta irizpide ekitatiboak ziurtatzea errazagoa izan dadin. Alderdi guztien artean eta eskola eredu guztien artean egin beharreko eztabaida politikoa dela garbi du Ortegak: "Gizartea nola antolatu nahi dugun erabaki behar da, gaiaren inguruan adostasun politikoa lortu". Martinezentzat, "gurasook ere badugu gure ardura zatia eta nahiko ikuspegi hipokrita dugu gai honetan".

Ikastetxe orekatua denentzat onuragarria dela dio Ortegak, ikasleen arteko elkar eragina izugarri lagungarria delako, ikasle berriak integratuago eta gogotsuago sentitzen direlako, euskaraz ez dakitenek aiseago ikasiko dutelako hizkuntza alboan euskaldunak baldin badituzte, irakasleak errazago kudeatuko duelako ikasgela...

"Hezkuntzak ez badu gizarte kohesioa bere egiten, jai dugu"

Klase ertaineko euskaldunek ez dituzte beti mota honetako eskolak saihesten. "Beldurak izatea normala da, baina gero ez dira beldur errealak eta gaindi-

tu egiten dira, aurreiritziak bezalatsu. Guk geuk geneuzkan mugak gainetik kendu eta asko ikasi dugu. Hautu indibidualetik harago, babesa lortzea ere inportantea da, guraso batzuen konpromisoa eta lan egiteko gogoia erdiestea, orduak sartu behar direlako. Bitartean, jakina, sinetsi behar duzu zure seme-alaba lekuri onenean ari dela ikasten". Hala azaldu digute Ioseba Apilanez eta Maika Diaz de Aldak. Duela hamabost urte, Gasteizko Alde Zaharrean dagoen Ramon Bajo ikastetxe publikoa ghetto-eskola zenean, bertan matrikulatu zuten semea. A ereduko ikastetxea zena D ereduko bilakatzea ere lortu zuten, gurasoek eskatuta.

Une zailagoak eta hobeak dituzte go- goan, baina bi semeek ikasi dute eskola horretan, eta ibilbide oparoa egin dute biek ere, bai harremanetan, bai hainbat gurasorentzat traba nagusi diren arloetan: arlo akademikoa eta hizkuntza. "Areago, euskara izan dute kohesiorako ardatz, ikasle batzuek gainera ez zutelako oraindik gaztelania lehenengo edo bigarren hizkuntza gisa finkatuta, eta euskarak batu ditu". Baliabide eskasak zituen ikastetxeak, egia da, eta auzoa ezinbestekoa izan da zeregin horretan: jende inplikaturik eta kontzientziaturik aurkitu dute Alde Zaharrean, eta eskolaren luzapena izan da kalea; auzora zabalduta zen eskola eta honek zituen beharrak eta hutsuneak betetzen lagundu zuen horrek. Eskolaz kanpoko jardueretan adibidez, aukera urria zuen Ramon Bajok, eta Goian elkarteak sortu zuten, aisialdi eskaintza zabaltzeko.

Argi dute Apilanez eta Diaz de Aldak: "Hezkuntzak ez badu gizarte kohesioa bere egiten, jai dugu. Arriskutsua da norbere burbuilan bizitzea eta aniztasuna oso ona da, denontzat. Guraso batzuek diote ez dutela haien seme-alaba nahi kanpotarrez edota txiroez betetako ikasgelan, beldur dira, baina gizarte hobe nahi badugu borroka egin behar dugu, ezin dugu beste alde batera begiratu". ■

Higienea

Gehiegi garbitzearen paradoxa

Gorputza garbitzea ez da beti osasun kontua, ezta osasungarria ere. Egunean behin edo sarriago egitea da gaur egun normalena. Ohitura kultural hau, baina, batzuetan kaltegarria gerta liteke azalarentzat.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak



ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA

Fisioterapeuta ofizioz, oro har osasunarekin lotutako gai guztiekiko agertzen du jakin-mina Oier Gorosabel Larrañagak. Higienez hitz egiteko bildu gara oraingoan berarekin. Garbitasunaren testuinguru kultural eta historikoa azaltzeko, atzera egin du denboran, greziar eta erromatarren garaiko bainu-etxeetatik hasi eta gaur egungo “hipergarbitasunaz” mintzatzera heltzeko: “Egungo garbitasun eredua XIX. mendetik dator, European osasun arloan eman zen iraultzatik, hain zuzen. Izurriteei aurre egiteko higieene publikoa bultzatu zen eta osasun maila izugarri igo zen”. Iraultza horrek gaur normalak diren ur korrontea, komunak, antisep-tikoak eta zabor-bilketa lortu zituen, besteak beste. Hala ere, azken urteetan gero eta gehiago garbitzen gara eta horrek osasunari kalte egin diezaioke, hainbat adituren hitzetan. Hortxe paradoxa.

Garbia eta zikina kontzeptuak erlatiboak dira, beraz: “Erromatarren garaian ez zen xaboirik erabiltzen. Azala olio eta hondarrez eginiko nahastearekin igurtzen zuten eta ondoren *strigilis* izeneko igitai antzeko batekin kendu. Egun, zikintzat hartuko genuke hori”,

dio Gorosabelek. 1850. urte inguruan, gaixotzean edo ezkondu aurretik soilik bainatzea zen ohitura. 1900 aldera urtean behin egiten zuten europarrek, “baita aberatsek ere”. Eta urrutira joan gabe, 1980ko hamarkadan normalena astean behin dutxatzea zen. Gaur, ordea, egunero behin edo gehiagotan egitea da ohikoena.

Xaboa da kaltegarria


“Xaboiak gure amonaren bizimodua irauli zuen. Euskal Herrian 1900. urte inguruan azaldu zen eta lixibaren ordezkoa izan zen. Diru pixka bat zuenak xaboa erosten zuen eta garbitoki modernoetara joaten zen arropa garbitzera”. Azalpen horri tiraka, Gorosabelek esan digu xaboa ez dugula neurrian erabiltzen. Egunero dutxatzeak ez, egunero xaboa erabiltzeak ekar ditzake arazo nagusienak; azala babesik gabe utzi eta zenbait gaixotasuni ateak zabaltzea, esaterako.

Bereziki bi arazo sor ditzake horrek. Batetik, immunitateari eragin diezioke; epidermisaren kanpoko geruza eta izerdia gehiegitan kentzeak bakterien ugalketa ekarriko du, eta errazago sartuko dira gorputz barrura. Tenperatura

aldaketen aurrean gorputza egokitzea zailagoa izan daiteke, gainera.

Bestetik, estetikarekin lotutakoak ditugu; azalari babesa kentzearekin batera hark ura galdu eta lehortu egingo da. Eta horrek alergiak edo narritadurak sor ditzake, uzkiean adibidez, kroniko bihurtzeraino. Egunero garbitzearen inguruan mintzo, Gorosabelek esan digu azalari ez badiogu uzten “eraso” horien kalteez erabat osatzen, “zauria zauriaren gainean” egingo dugula.

Gakoa nork bere beharrak aztertu eta neurriak hartzea litzateke; maiztasuna eta erabiliko diren produktuak kontuan hartzea, alegia. Lanagatik edo dena delakoagatik egunero dutxa hartu behar duenak xaboi leunagoak balia ditzake, eta sarri dutxatzen ez den pertsonak xaboi puruak. Gorputzeko atal guztiak ez direla berdinak gogorarazi digu Gorosabelek. Besapeek, hankarteak edota oinek usain sendoagoa dute eta garbitzeko premia handiagoa da aurpegiaren edo besoen kasuan baino. Dena den, ez garela itsutu behar dio: “Gorputzaren usaina ez dago modan eta ezabatzen saiatzen gara. Inoiz garbitzen ez den pertsona bat zikina irudituko dakiguke baina ez da horregatik gaixotuko”. ■



DEPRESIOA

Diagnostikoa: Berdintasunik eza

Indarkeria matxistak, egiturazko indarkeria izanik, emakume gisa sozializatuak izan direnak, bai eta genero arau bitarraren mugetatik haragoko identitateak gorpuzten dituzten norbanakoak, goitik behera zeharkatzen ditu. Indarkeria horrek eragiten dituen kalteetatik batzuk beste batzuk baino errazagoak zaizkigu identifikatzeko ordea, eta tabu ugari tarteko, buru osasunari dagozkionak ilunpetan geratu ohi dira maiz.



Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

Han-hemenka aurkitu ditzakegun datuek, baina, aipatu ilunpeak argiztatu eta errealtate gordina bistaratzen dute: Munduko Osasun Erakundeak (MOE) azpimarratzen duenez, adin nagusikoen artean buru osasun arazo nagusiak pairatzen dituztenen artetik, gehiengoa emakumeak dira; Espainiako Osasun Inkesta Nazionalak emandako datuen arabera, lau emakumetik batek buru osasunarekin lotutako arazoak izateko arriskua dauka. Arrisku tasa nabarmen jaisten da gizonezkoen dagokienez, %14raino; Bestalde, EUSTATen 2013ko Euskal Osasun Inkestan antzeman daitekeenez, 2002tik 2013ra osasun mentalarakin lotutako arazoek (antsietate eta depresio sintomen prebalentziaren arabera neurtuta) gora egin zuten EAEn, emakumeetan gizonezkoetan baino portzentaje altuagoan, %23 eta %16 hurrenez hurren. Adina, klase soziala eta ikasketa mailaren arabera buru osasunaren egoera irudikatzen duten grafikoetan ere, emakumeak gailentzen dira eten-gabe.

Datuok ulertzera ematen dutenez, generoak osasun mentalean eragin erabakigarria dauka. MOEk argi dio: rol askotarikoek eragindako presioa, bazterketa, indarkeria matxistak, sexu abusuak eta txirotasunarekin lotutako faktoreen konbinazioak negatiboki eragiten du emakumezkoen ongizate mentalean. Hori horrela, geroz eta gehiago dira buru osasunaren arlora hurbiltzeko genero ikuspegia ezinbestekotzat jotzen dutenak.

Generoarekin lotura duten arazo psikologikoak artatzen berezitua da Madrileko ESEN Entre Nosotras Osasun zentroa. Bertan lan egiten duen aditu taldeak genero krisialditzat jotzen ditu generoarekin zerikusia daukaten ondoezak, ez gaixotasuntzat. Ondoez horien eragileen artean, gizarteak emakumeen kontra darabiltzan indarkeria mota askotarikoekin batera, genero sinkretismoa aipatzen dute, egun ematen den genero femeninoaren ikusmolde bikoitzari aipamena egiten diona: “generoaren ikuskera tradizionala eta era berean modernoa ditugu, lehenak

autonomia baliogabetzen du eta bigarrenak xedetzat hartu. Emakumeen gehiengoarentzat, kontraesan hori eta beronek dakartzan gatazka konpontzeko zailtasunak dira ondoezaren sortzaile”, azaldu dute. Ildo berean, Roser Capdevilla eta Carmen Sáez honela mintzatu ziren *Emakumeen Osasun Mentala* liburuxkan: “Emakumeok aldatzen gabiltzala sentitzen dugu, baina baloreek eta egitura sozialek aldaketa horretan ez digutela laguntzen antzematen dugu”.

Capdevilla eta Sáezen arabera, agresibitatea egon ohi da emakumezkoen prebalentzia nabarmen handiagoa duten ondoezen oinarrian. Kontua da emakumeek, rol femeninoan sozializatuak izanagatik, agresibitatea adierazteko zailtasunak izan ohi dituztela. Horregatik gehienetan onargarriagotzat jotzen duten tristuragatik ordezkatzan dute hasierako sentimendua. Ondoezak, momentu horretan, sintoma fisiko bidez kanporatzeari ekiten dio.

Gorputza ondoezaren adierazle

Buru, bular, bizkar, artikulazio edota giharretako mina, desira eta apetituaren galera, digestio arazoak, zorabioa, nekea, gehiegizko loa edo insomnioa eragin ditzake, besteak beste, agresibitatea tristuragatik ordezkatzeko. Depresioaren koadro sintomatologikoa, alegia. Izan ere, gaizki bideratutako agresibitatearen kudeaketak beste zenbait arazo ere eragin ditzakeen arren, depresio deiturikoa da ondoez guztien artean nagusitzen dena. MOEk emandako datuei jarraiki, desgaitasun kausa nagusia da mundu mailan, eta generoa zein indarkeriarekiko esposizioa hau pairatzeko arrisku faktoreak dira. Datuek ez dute azalpenik behar: mundu mailako depresio kasuen %80 exogenoak (kanpo eragileek eragindakoak) dira, eta tipologia honetako depresioen %70 emakumezkoetan ematen da.

Faktore soziokulturalek depresioaren garapenean daukaten garrantzia tarteko, ikuspegi antropologiko eta feminista darabiltza Maria Zapata Hidakok depresiotik ongizaterako prozesuak ikertzeko. Izatez psikologia ikasketak baditu ere, ikuspegi psikologiko eta mediko-psikiatrikoak “gehienetan ondoeza indibidualizatu” eta “kolektiboak eta kulturak daukaten garrantzia txikiagotu” egiten dute-

la iruditzen zaio. Are gehiago, ondoez hauek depresiotzat jotzea “gizarteak eragindako ezinegonaren despolitizazioa” dela uste du. “Gatazka soziala patologizazioaren bitartez saihesten da”, dio.

Zapatak ere ez du depresioa gaixotasuntzat jotzen, berak bizitzako krisi une bezala ulertzen du ondoeza. Pilatutako hainbat jazoera kudeatzeko ezintasunak, edo kudeaketarako tresna faltak norbanakoak “behea jotzea” eragiten duenean ematen den krisialdia, alegia. Depresioa eragiten duen sufimendu pertsonalak, hein handi batean, inguratzen duen sistema sozial eta kulturean norbanakoak daukan desabantaila posizioarekin harreman estua duela deritzo. Hala bada, ‘gorputzuta’ ondoez soziala terminoa darabil ikertzerakoan. Horrek gorputza (emozioekin interkonexioan dagoen zerbait bezala ulertuta beti ere) behaketaren erdian jarri eta gaiari gorputz etnografiatik behatzea ahalbidetzen dio, depresioak eragiten dituen sintoma gehienak korporalak izanik ezinbestekotzat jotzen duen ikuspegia. Aitoritzen duenez, depresiotik ongizaterako bidea gorputzetik pasa behar delako hipotesia izan du hasieratik.

Behatutako datuetatik ondorioztatu duenaren arabera, generoa, adina eta diru-sarrerak dira depresioaren aurrean zaurgarritasun faktore nagusiak. Pobreziak baldintzatuta bizitzeak, gaitetasuna ohoratzen duen jendartearen nagusi egiteak edo emakume izateagatik indarkeria askotarikoak pairatzeak depresiora bideratu dezakete bat. Zer esanik ez genero faktorea beste zaurgarritasun faktore batekin gurutzatzen denean. Adinarekin argi ikusten da:

» Munduko Osasun Erakundeak (MOE) azpimarratzen duenez, adin nagusikoan artean buru osasun arazo nagusiak pairatzen dituzten gehienak emakumeak dira

“Depresio diagnostikoei dagokienez, genero arteko tartea askoz handiagoa da 65 urtetatik aurrera. Zergatik? Adinkeria generoarekiko erlazioan dagoelako. Gogorra da gizonezkoa eta zaharra izatea, baina askoz gogorragoa da emakumezkoa eta zaharra izatea”, azaldu du.

Kronikotasun altuko gaitza izan arren, depresioa garatzen duen norbanakoak eraldaketa gaitasuna duela uste du Zapatak, gaitzari buelta emateko ahalmena. Gaitasun horren bitartez hainbat norbanakok martxan jarritako berreskurapen prozesuak gertutik jarraitu ditu orain arteko ikerketa prozesuan, eta ikusitakoaren arabera depresioak adina berreskurapen prozesu daudela dio. Uste du ez daudela berdinak diren bi depresio kasu, ongizatea zein berreskurapena guztientzat gauza bera ez den era berean. “Beharrezkoa da hau kontuan hartzea, berreskurapen oro bide bakarretik bideratzeko derrigortasuna ekiditeko”, azaldu du. Hala ere, generoak ondoezean duen



» **MARIA ZAPATA:**

“Gatazka soziala
patologizazioaren
bitartez saihesten da”

» **MAITE MUTUBERRIA:**

“Bakoitzak badu bere
zikintasuna (...) nahiz eta
batzuetan hor gordetzen
dugun, munduari garbiak
garela erakutsi nahirik”

pisua aipagai dugun honetan, deigarria da berreskuratzerakoan batek edo beste genero eredu malguago bat gorpuztean ikusi izana giltzetako bat.

Arestian aipatu bezala, ongizaterako bideak gorputzetik igaro behar duela ko hipotesia darabil Zapatak. Goizetan dutxatzea, ariketa fisikoa egitea, maki-llatzea, ... gorputzaren inplikazioa eskatzen duten praktikak oinarritzotzat jotzen ditu berreskurapenera bidean. Alabaina, beste hainbat alderdik ere berebiziko garrantzia daukatela uste du, horien artean harreman sareak. “Ezinbestekoa deritzot sare bat izateari, ezin dezaket imajinatu ere egin bakarrik dagoen pertsona baten berreskurapena”, azaldu du. “Krisialdiek aldaketak egitera behartzen gaituzte, identitate eraldaketak burutzerak”, baina “identitatea zerbait erlazonala bezala ulertuz beti ere” dio, suspertzeko indarra zaurgarritasuna eta besteekiko

mendekotasuna onartzean dagoela sinetsirik.

Koaderno gorputz-atal

Zapataren hipotesia aintzat hartzera garamatza Maite Mutuberriaren bizipenak, zeinak ilustratzailea izanik, bolada iluna igarotzen zebilela marrazketan aurkitu zuen heldulekua. “Koadernoak nire parte dira, nire gorputzeko beste atal bat bezala”, dio bere kasuan ere ongizatera bidea gorputzetik pasa zela ulertzera emanaz. Bizi zuen ezinegona koaderno orrietan irudikatzen joan zen, eta album-liburu formatuan kale-ratu ditu marrazkiak duela gutxi. Krisi baten koaderno dela dio, Mutuberriak ere krisialditzat baitauka bizitakoa. Depresio hitza ez zaio bizi izandakoaren adierazgarri iruditzen eta termino mugatzailea dela deritzo, beraz berak jarri dio izena ondoeza hari: *Lohia*, kaleratu berri duen albumaren titulua ere badena.

“Krisialdia indusketa prozesu bat bezalakoa izan da, nire barrurantz”, azaldu du. Prozesu horretan ikusi duenez, “bakoitzak badu bere zikintasuna” barruan, “nahiz eta batzuetan hor gordetzen dugun, munduari garbiak garela erakutsi nahirik”. Zikintasun horri erreferentzia eginez jarri dio jarri dion izena lanari. Indusketa horretatik irakaspenik atera badu barruan denok lohia daramagula da, eta “hori kudeatzen jakin behar dugula, ez garbitzen”. Zikintasun hori kudeatzeko tresnen faltari egozten dio krisialdia, Zapatarekin bat etorritik honetan ere.

Bere burua ezagutzeko baliagarri izan zitzaion krisialdia Mutuberriari, albumeko marrazki batek ezin hobeto ulertzera ematen duen legez. “Au-

toezagutzarako autopsia” irakur daiteke bertan, egilearentzat aterabide bakarra bere “barrura sartu” eta bere burua “barrutik ikustea” izan baitzen. Kontatzen duenez, modu ezberdinetan saiatu zen ongizatera bidea aurkitzen, baina giltza barrurantz bidaia horretan aurkitu zuen. “Hori irudikatzen dut liburuan, nola sartzen naizen nire erraietan barrutik ikusteko nire burua”, dio.

Lohiaren obra-hondakinak dira, egilearen hitzetan, liburuan jasotzen direnak. Hondakinok behinola zer osatzen zuten galdetzerakoan, hausnartzeko tartea hartu du erantzun aurretik: “Nik fikziozko Ni bat sortu nuen, eta hori zen erori zena. Jaiotzen garenetik dihardugu identitate bat sortzen, gure nortasuna sortzen, eta heldu daiteke puntu bat zeinetan ez dakizun benetan hori zaren ala gizarteak sortu duen zerbait besterik ez zaren. Orduan, erori zena nik sortua neukan Ni hori izan zen, eta orain hondakinekin nire benetako Nia sortzeko saiakeran nabil”.

Potentzialtasun handiko lantzat jo daiteke *Lohia*. Bai sufrimendu psikologikoaren bueltan eraikitako eromenaren tabua hautsiz bakardadean eta pribatuan eramaten den gaia mahaigaineratzen duelako, bai depresioaren ikuspegi gertukoagoa edo intimoagoa ematen duelako. “Arazoa gizartearena da, baina indibidualki bizitzen da egunerokotasunean. Agian egunerokotasun horretatik eta barrutik ari naizelako ulertzen da hobeto”, dio autoreak. Nork edo nork helarazi dion bezala, lanak gertuan ditugun depresio kasuak identifikatzen laguntzen du, eta hori ez da lorpen makala. “Niretzat ez da izan erraza lan hau jendarteratzea. Horregatik, norbaiti lagungarri bazaio, niretzat pozgarria da, bota diezadaketen lorerik handiena”, aitortu du. Bide batez antzerako bizipenak bizi dituzten edo pairatu izan dituzten emakumeak isiltasuna apurtzen hasteko balio badu, zer esanik ez. “Polita iruditzen zait emakumeak liburu hau erabiltzea kontu hauetaz hitz egiten hasteko aitzakia gisa”. ■

Maite Mutuberriaren ‘Lohia’ album-liburuko
ilustrazioetako bat.



Periko Berrioategortua Elkartasun eta konpromisoaren irribarrea

Abuztuaren 3an hil zen Pedro Berrioategortua Murgoitio (Apatamonasterio, 1928 – Zornotza, 2018), frankismo garaian abade, erregimenari aurre egin zion borrokalari nekaezina. Kamioiarekin freskagarriak banatzen zituenean nola Guardia Zibilak jazartzen zuenean, Derioko itxialdian nahiz Zamorako apaiz-kartzelan, ez zuen sekula tinkotasuna zerion irribarrea galdu.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: JUAN MARI ARREGI

“Gaur hemen gaudenok soberan ezagutzen dugu Periko Berrioategortuaren izate humanoa. Euskal herri langilearen aldeko iraultzaile eredugarria izan baitzen, eta horregatik jasan izan zituen ulertu ezinak, atxilotzeak, kartzela eta gerra zikina. Abertzalea izan zen beti, euskaltzalea, independentista, sozialista eta solidarioa”.

Hitz horiek eskaini zizkion Berrioategortuari bere lagun eta borroka bidaide Juan Mari Arregik, Zornotzan irailaren 8an egin zioten agur zibilean. Ekitaldian izan ziren, senideez gain, harekin kartzelan egondako Xabier Amuriza eta Mi-

ren Amuriza Perikoren alababitxia; Juan Mari Areitio laguna eta Juan Mari Zulaika apaiz preso ohia; hala nola ezker abertzaleko eta Goldatu frankismoaren preso eta errepresaliatuen elkarteko ordezkariak. Senideetako batek Joxean Artzeren eta Mikel Laboaren *Txoria txori* abestu zuen gitarraz, eta estreinatzeke dagoen Zamorako apaiz-kartzelari buruzko dokumentalean abade zornotzarrak izandako azken elkarrizketaren pasarteak ere irakurri zituzten.

Baserriko semea, sotana jantzi zuen unetik Eliza barrutik aldarazi eta dikta-

duraren kateak hautsi beharraz jabetu zen. Zornotzako abade-etxetik ekin zion zeregin horri, lehen aldiz 1960an, 339 euskal apaizek gutun ezaguna kaleratu zutenean. Lehen isuna, lehen abisua. Berrioategortuak erabaki zuen jende xeheen zoru bera zapaltzea, izan Bandedetako grebalarien ondoan, izan kontsumo kooperatibak sortzen –La Zornozana Eroski-ren erroetako bat izan zen– edo morroi gisa lanean. Abadeak uko egin zion Estatuko soldadari, eta beste zenbait bezala, beharrean jarri zen, eliztarren harridurarako.



1968. urtea berezia izan zen. Tolosako Bentaundin Txabi Etxebarrietaren heriotzak halako hotzikara sortu zuen eta agerian utzi erregimenak ez zuela xalokeriaz erantzungo. ETAko militantearen aldeko hiletak debekatu zituen gobernadore zibilak eta herrietara guardia zibilak bidali. Berrioategortua ez zen kikildu eta Zornotzako elizako ateak zabalik eman zuen meza. Zamorako apaiz-kartzelan hilabete eta erdi egin zuen; bere hezurrek orduan ezagutu zuten espetxeko pareten umela zer den. Ez zen azkeneko aldia izango. *Zamorako apaiz*

-kartzela (Txalaparta, 2011) liburuan utzi zuen lekukotasuna: udan eguzki errea eta negu luzean sekulako hotza egiten zuen patio txikiak erakutsi zien “Madril eta Vatikanoren kartzela hark barnean ezkututzen zuen krudelkeria klimatikoa”.

Espetxean zirela, indarra baino ahulezia sarriagotan sumatzen zutela zioen Periko Berrioategortuak, baina ahultasun horrek, osteraren denak “elkartzela lortzen zuen”. 68ko azaroan Derioko seminarioko itxialdiak ahalduz kolektibo bat ekarri zuen euskal elizgizonen

artean –tartearen zen bera ere–. Mende erdia da 80 apaizek Eliza pobrea, librea, dinamikoa eta indigena aldarrikatu zutela, ekintza zuzenaren bidez. Jose María Cirardaren mehatxua ere zuzena izan zen zeharo: “Nire autoritatearen pisu osoz diotsuet oso larria litzatekeela diskordiarene bekakua ereitea”, zabaldu zuen pastoral bidez gotzain frankistak Bilboko egoitza apostolikoaren administradore egin orduko. Konkordiarene aitzakia, errepresio frankistaren eta torturen aurrean ezikusiarrena egiteko.

Berrioategortuak bere larrutan nozitu zuen jazarpena: motorra kendu zioten, autoa erre, sarritan atxilotu eta egurra eman. “Hidalgo kapitainak nirekin nahi zuena egin zuen, neurri batean”, aitortu zion Miel A. Elustondo kazetariari hil aurretik (*Berria*, 2018-09-02). Manuel Hidalgo Salas Gernikako guardia zibilen burua peskizari ibili baitzen beti: “Bizkaian ez da Berrio abadea ezagutzen ez duenik”, esan zion behin atxilotuta zeukan bati.

1975ean, salbuespen egoera betean, *Noticias del País Vasco durante el estado de excepción* buletin klandestino bantzen hasi ziren militante eta herritar konprometitu askoren laguntzari esker. Hidalgok uste zuen Durangaldean zegoela aldizkariaren argitalpen zentroa –Madrilen zegoen arren–, eta jo puntuan zeukan Zornotzako Astepe auzoko Casa Garaje etxea. Han bizi ziren ordurako Eliza utzirik zuen Periko eta Txaro Aranbarri bikotekidea –duela urtebete hila–. Astepeko etxe hura, informazio iturri ez ezik, Zamorako apaiz-kartzelan zeudenak laguntzeko gune ere izan zen, eta horretan Aranbarriren ekarpena ezinbesteko izan zen.

Franco hil ostean prentsaren munduan murgildu zen Berrioategortua, *Egin* egunkariaren sorreran parte hartu eta lan eginez. Bere bizitzako azken urteetan elkartzasuna eta konpromisoa izan zituen ardatz, preso politikoaren eskubideen defentsan, Boroako zentral termikoaren kontra eta herriko eragile askorekin elkarlanean, beti irribarrean ahoan.

“Azken astean ospitalean zela –azaldu zuen agur ekitaldian Juan Mari Arregik– telefono mugikorra erakusten nion, bere egoeraz arduratuta zegoen jendearen dei eta mezu asko jasotzen ari nintzela esateko. Eta Perikok beti maitasun eta esker oneko irribarretxoak egiten zuen”. ■

Nerea Redondo, euskaraz bizi den egiatarra

“Edonork ez dauka gaitasunik edo baliabiderik hizkuntza-gatazka bati aurre egiteko”

Nerea Redondo eta bere ahizpen asmoa triatloia probatzea zen. Hala gerturatu ziren ekainaren 23an Donostiako X. Emakumezkoen Triatloira. Epailearen hitzek harri eta zur utzi zituen: “*Por mis cojones que vais a hablar en castellano*”. Alegia, bi ahizpen artean euskaraz egitea debekatu ziela. Esaldi horretaz harago luzatu zen hizkuntza eskubide urraketa salatu zuten ahizpek orduan. Orain patxadaz hitz egin dugu Nerea Redondorekin gertaera hartaz, Euskaraldiaren hasia izan zen Egia auzoko esperientziaz eta Euskaraldiaz.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Erakundeetara eta Donostiako Udalera bidalitako kexa-idatzia whatsapppe eta sare sozialetan di-da batean zabaldu zen. Hor azaldu zuten ahizpek epailearekin izan zuten gatazka zehatz-mehatz. Kontakizuna irakurrita, antzeman zitekeen ahizpek bazutela esperientzia halako hizkuntza egoerak kudeatzen, bazutela diskurtso eta jarrera jakin bat. Nerea Redondok baieztatu zuen gure ustea ekainean hitz egin genuenean: “Gu horrela bizi gara. Duela bi urte Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimean parte hartu genuen. TELP ikastaroa egin genuen eta tresnak eman zizkiguten euskaraz bizitzeko ahaleginean moldatzeko”.

Hiru hilabete igarota, zer gorputzaldi gelditu zaizu?

Gazi-gozoa. Donostian, 2018an, horrelako gauza bat gertatzea, hau da, gure artean euskaraz hitz egitea debekatzea latza da. Atlético San Sebastián talde antolatzaileak onartu zuen gertatutakoa eta esan zuen hori ezin zela gertatu berriro. Aldiz, Gipuzkoako Triatloi

Federazioko epaile taldeari ez genion antzeman gertatutakoa onartzeko eta epaile horrekiko neurriak hartzeko asmorik. Bestetik, ordea, egin behar genuena egin genuen, salatu, eta babes handia izan genuen.

Salatuko zenutela argi zeneukaten?

Triatloia bukatu genuenean eta jabetu ginenean deskalifikatuta [txartel gorria atera zion epaileak errespetu faltagatik] nengoela ahizpari esan nion: “Itziar, gogoratzen zara nola duela hilabete batzuk futbol partida batean arbitroarekin horrelako zerbait gertatu zen?”. Kontxan bertan esan nion: “Honek ETBn atera behar du”. Esan nahi nuen publiko egin behar zela eta zabalpena eduki behar zuela.

Guk kexa Elebiden, Behatokian eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuan jarri genuen. Behatokiak, larritasunaz jabetuta, publiko egin zuen. Guk Donostiako Bagera euskara elkartearekin hitz egin genuen eta haiek esan ziguten zein eremu geneuzkan salaketarako. Zeren ez da batere erraza.

Zer ez da erraza?

Hasteko, horrelako erantzun bat jasotzen duzunean errazena edo ohikoa da erdarara pasatzea. Beste aukera da aurre egitea, eztabaidatzea. Salatzea erabakitzen duzu, kexa idatzi egin behar duzu, jakin behar duzu nora zuzendu, prest egon behar duzu hedabideak hartzeko, gure kasuan Federazioarekin eta Atléticoarekin bilera egiteko... Edonork ez dauka gaitasunik hori dena egiteko, ez dauka baliabiderik, agian ez dauka denborarik edo gogorik.

Eta babesa behar duzu. Guk bagenekien nora jo. Segituan Bagerako, euskara munduko, baita kirol munduko batzuen babesa ere eduki genuen.

Lehenengo aldia da horrelako gatazka bat izan duzula?

Norbaitek eska diezazuke erdaraz egiteko edo esan diezazuke ez dagoela une horretan euskaraz egiteko aukerarik, baina halako debeku bat lehenengo aldia da, bai! Gurekin halako jarrera izan bazuen, han geunden 300dik gora kirolarirekin ere jarrera bera izan zuen.

Ez daude ohituta euskaldunek aurre egiten, eta beraz, guk egindakoa errespetu falta da.

Euskarari eutsi zenioten eta jarrerara landu bat izan zenuten.

Gu horrela bizi gara. Duela bi urte baino lehen seguru nago erdarara pasako nintzela; ez ahizpen arteko elkarriketean, baina bai epailearekin. Orain bai, baina orduan ez nukeen edukiko bonbilla piztuta.

2016an Donostiako Egia auzoan egin zenuten Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako ekimenaz ari zara. Txandaka, astebetez euskara hutsean bizitzeko konpromisoa hartu zenuten.

Aste horretarako prestatzeko Emunek eskaintzen duen TELP ikastaroa egin genuen. Niretzat ikaragarritzko aldaketa izan zen. Ikuspegia aldatu nuen eta tresnak eman zizkidan. Egin genuen lehen hausnarketa: euskaraz bizitzek ekartzen du nekea, haserrea, zailtasuna, lan bikoitza... Orduan, zer da errazena? Erdarara pasatzea. Bigarren hausnarketan aurreiritziez hitz egin genuen, nola nik erabakitzen dudana nork dakien euskaraz eta nork ez; azal koloreagatik, janzkeragatik, adinagatik... Ondoren tresnak eman zizkiguten kalean euskarari eusteko. Lasaitasuna adibidez: "Lasai, ez dakizu? Nik lagunduko dizut. Ez dakizu hitz egiten, baina ulertzen duzu?". Haserrea kudeatzen ere ikasi genuen, eta aurkikuntza handiena jendearenagana irribarrez gerturatzea izan zen, norbera lasaitzen da eta bestea ere bai.

Ikastaroan ikasitakoa kalera eraman duzu bi urte hauetan.

Ikastaroa egin genuen guztiok hasi ginen horretan. Hauxe nire buruari esan nion lehen gauza: "Ikusiko duzu zein saltsatan sartuko zaren hemendik aurrera!". Bada, ez nuen esperientzia txar bat bera ere izan. "Ahobizi"-aren txapa neraman paparrean eta azaltzen nien zer egiten ari ginen. Nire eskubidea baino, nire nahia zela azaltzen nien, eta jendeak ulertzen zuen. Ez da hala, orain gogoratu naiz esperientzia txar bat izan nuela. Bati dena azaldu nion eta esan zidan ez zitzaiola interesatzen.



Euskara hutsean bizitzen ahalegintzen denez geroztik auzotarrekin harremanak aldatu ditu. Nerea Redondok dio gaur egun elkarriketak euskaraz eta gaztelaniaz arazorik gabe izaten duela. Euskaraz ez dakien bat dagoelako inguruko guztiekin gaztelaniaz egitea ere baztertua du.

Baina, orokorrean, jendeak asko eskertzen du berarekin esperientzia partekatzea, euskarara hurbiltzeko aukera ematea. Hor aurreko [Tabakaleran gaude] dendako langilea Ekua-dorkoa da. Hasi nintzaion euskaraz eta berak esaten zidan erdaraz: "Nik ez dakit ezer!". Eta nik: "Lagunduko dizut". Gaur egun etorkinentzako Auzoko programara etortzen da, zenbakiak badakizki, eta *kaixo* eta *agur* erabiltzen ditu jendea agurtzeko. Konturatu da hizkuntza bat dagoela, hemengoa, eta aukerak ematen dituela. Badugu arazo hori, jendeak oztopotzat du euskara, ez aukeratza.

Euskaraldia dator. Zuek Donostiako triatloi hartan esperientzia oso txarra izan zenuten. Zer esango zenieke parte hartzeko asmoa dutenei?

Gaur ekainaren 23a balitz gauza bera egingo nuke. Azaroan eta abenduan Euskal Herrian egitera goazena ikaragarritzko erronka da. Duela bi urte, Egiako esperientzia bukatu genuenean esaten genuen: "Hau Euskal Herriko herri guztietan egingo balitz?". Amets bat zen. Euskaraldia egingo zela jakin nuenean oilo ipurdia jarri zitzaidan.

Gure hizkuntza-jabetzan urrats erraldoia iruditzen zait. Hamaika egun esaten dugu, baina hamabigarrenean ez duzu ahazten, bonbilla piztuta gelditzen zaizu. Seguru nago esperientzia honek oinarri sendoa utziko duela hizkuntzaren garapenean. Zeren hizkuntzaren ofizialtasuna, erakundeek egiten duten lana, testuak bi hizkuntzetan... Bai, baina euskaraz bizi... ez. Klik bat egitea izango da. Klik bat, baina tresnak eskuan ditugula. Hau da, Euskaraldia baino lehen guk Egian egin genuen TELP moduko ikastaroak egingo dira. Zeren erraza da esatea, "astebetez euskaraz biziko gara", baina hori nola egingen da? Tresnak behar ditugu.

Azaroaren 23 bitartean lan ederra izango dugu jendeari Euskaraldia zer den kontatzen, jendea animatzen eta gerturatzen. Betiere euskara aukera moduan aurkeztuta. Niri egokiagoa iruditzen zait norberaren eskubideaz hitz egitea baino guztiok euskara erabiltzeko dugun aukeraz hitz egitea.

"Ahobizi" eta "belarriprest" rola asmakizun bikaina dira. Ez zaizu esaten besterik gabe: "Hitz egin euskaraz!". Proposamen zehatza da eta gainera tresnak ematen zaizkizu joko horretarako. ■



Jordi Borràs

“Eskuin muturreko gaietan murgildu nintzen jakinik jo-puntutzat hartuko nindutela”

Argazki makina lepoan zintzilik, manifestazio eta protesta sozialak lantoki bilakatu ditu Jordi Borràs (Bartzelona, 1981) argazkilari eta kazetariak. Massana Eskolan ilustrazio ikasketak egitean murgildu zen “nahi gabe” argazkilaritzan eta, orduz geroztik, hainbat hedabidetan egin du lan. Eskuin muturreko mugimenduen zokorik ilunenak azaleratzeko egin duen lanarengatik, mehatxuen helburu ere bilakatu da azken urteotan. Uztailaren 16an, hain zuzen, argazkilari gisa bizitako ikasturterik frenetikoena amaitzear zela, Espainiako Poliziaren inspektore batek eraso egin zion kalean.



Saïoa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: ORIOL CLAVERA

Ezustekoa pasatuta, zer moduz zaude?

Amorratuta eta oso haserre. Fisikoki hobeto, baina, azken hilabeteetan lan egin ezinik egon naiz saihetsetan jasotako kolpeen ondorioz min handia nuelako. Arnasteko eta lo egiteko arazoak nituen eta ez da xamurra izan.

Ondorio fisikoez harago, nola eragin dizu erasoak?

Uztailekoa ezustekorik eskandalagarriena izan arren, zoritxarrez, ez da lehendabiziko eraso. Urrian, besteak beste, bost urte beteko dira herio meha-

txuak jaso izanagatik lehen salaketa jarri nuenetik. Eta azken bost urte haue- tan, guztira dozena bat salaketa jarri ditut gai berarengatik.

Erasoaren biharamunean jakin zenuen erasotzailea ez zela polizia agente soila, Espainiako Poliziako Informazio Brigada-ko inspektorea baizik.

“Viva Franco, viva España” oihukatu zuen polizia espainolista eta frankista batek, inpuniate osoz eta ondoriorik gabe eraso egin didala ikusteak amorratzen nau gehien. Izan ere, lehen aldiz

konturatu naiz eskuin muturreko manifestaldiak jarraituz, nire lana askatasunez egiteko zailtasunen gainetik, aurrerantzean kaletik lasai joatea ere ezinezkoa izango zaidala.

Zertan da orain zure auzia?

Salaketa jarri nuen. baina oraingoz ezin dugu ezer berririk aurreratu. Ikasturtea hastear da eta seguruenik udazkenean jakingo dugu zerbait. Prozesu judizialean murgilduta izan den orok badaki bide luzea eta nekagarria izango dela.



Oraingoz erasotzailea normaltasunez ari da lanean. Justiziarik egingo al da?

Erne eta kezkatuta nago, erasotzailearen kontrako neurriarik hartu ez delako. Batez ere, gertakariak alderantziz gertatu izan balira eta, nik kalez jantzitako polizia agente bati eraso egin banio, biharamunean atxilotuko nindutela badakidalako. Beraz, beste behin berresten da lehen mailako eta bigarren mailako herritarrak daudela. Hori horrela, prozesu judizialean ez dut itxaropen handirik. Zaila zait Zuzenbide Estatu honetan sinestea. Baina, noski, bukaeraino borrokatuko naiz justizia egiteko.

Hamabi ordutan zure defentsa ordaintzeko beharrezkoak ziren 12.000 euroak bildu zituen *Solidaritzem-nos! Prou im-punitat!* egitasmoak. Zer deritzozu jaso duzun erantzuna?

Ikaragarria izan da Katalunian azken urteetan loratu den elkartasun sentimendu erraldoia azalean bizitzea. Atzo, adibidez, argitaratu dudana azken libu-

» **“Beldurra sustatu nahi dute baina lortzen ari direna da denok haginak zorroztea”**

rua aurkezteko ekitaldi batera bidean nintzela, Kataluniako herri galdu batetako gasolindegian gelditu nintzen. Hango langileak ezagutu ninduen eta, ni nintzela egiaztatu ondoren, kartera ateratu zuen eta epaiketarako erresistentzia kutxan parte hartzeko dirua ematen hasi zitzaidan. Tira, hau adibide bat besterik ez da, baina ikaragarria da: egunero daude afari horiak presoan alde, jendeak dirua bidaltzen du epaiketei aurre egiteko. Herritarrak posible dutena eta gehiago egiten ari dira.

Udan lazo horien kontrako eraso faxistak areagotu dira. Zenbateraino dago gizar-tea beldurtuta?

Beldurra sustatu nahi dute, baina, lortzen ari direna da denok haginak zorroztea. Zalantzarik gabe, independentismoaren kontra jaio diren sektore intransigente horiek kontrako erreakzioa eragiten ari dira eta ondorioz, jendea gero eta harroago ateratzen da kalera. Haien arrakastarik handiena da Estatuak gure borroka maila sinbolikora eramatea.

Baina, borroka sinbolikoa aski al da Kataluniaren askatasun irrika asetzeko?

Inola ere ez. Independentismoak funtsezkoa du orain aurrera egitea, izan ere, epe labur eta ertaineko helbururik ez dugun bitartean, borroka sinbolikoan harrapatuta egongo gara. Zentzu horretan, Quim Torrak pasa den astean marraztu zuen etorkizuneko balizko agertokiak ez du laguntzen. Premiazkoa da zertan hutsegini eta zertan asmatu dugun ikusi eta gure helburua asetzeko estrategia bat diseinatzea.

Zein izan beharko litzateke abiapuntua?

Urriaren 1eko ereduari eustea: erreferenduma egin genuen ideologia askotako herritarrak, elkarren arteko desberdintasunak alde batera utzi, eta helburu beraren alde borrokatu ginelako. Hori izan zen arrakasta. Beraz, aurrerantz ere, ezinbestekoa izango da jarre-
ra eraikitzailea izatea.

Laster urtea beteko da lehen ordezkariak espetxeratu zituztenetik. Zein da normaltasunera itzultzeko gakoa?

Ez dugu normaltasunik berreskuratu-
ko. Espainiako Estatuak beharrezko duen guztia egingo du erasotzat har-
tzen duen ekintza orori aurre egite-
ko. Beraz, sezesio saiakera bakoitzari
eskura dituen baliabide guztiekin
erantzutxo dio, legezkoa ala legez kan-
pokoia izan. Funtsean, herrialde demo-
kratikoia izango bagina, Eskozian edo
Quebecen egin duten erreferenduma
egingo genukeen hasiera-hasieratik.
Baina ez, hemen galdeketa bat antolatu
eta Poliziak biztanleria zibilari eraso
egiten dio. Aurrekaririk gabeko basa-
keria bizi dugu.

Zer behar du independentismoak orain?

Mugimendu independentistak bere
gain hartu behar du aurrean etsai bo-
teretsua duela. Historiak erakutsi du
Estatua iristen ez den tokietara heldu
dela gerra zikila, eta Katalunian be-
rriki berretsi da: eraso informatikoak
iruzurrez erabili zituzten erreferendu-
ma eteteko, webguneak itxi zituzten
agindu judizialik gabe, irailaren 20an
CUPen egoitzan sartzen saiatu ziren
agindu judizialik gabe... Beraz, absur-
doa da futbol partidu hau jokatzeko, ja-
kinik jokozainak kontrako ekipoaren
karneta duela.

**Nekerik sumatzen duzu Kataluniako he-
rritarren artean?**

Nekea bai, baina, prozesu independen-
tista *soufflée* izango zela espero zute-
nek ezustekoa hartu dute. Katalunia-
ko gizarte mobilizatuta dago 2009ko
irailean Arenys de Munt-en galdeketa
abiaturarenetik eta, bederatzi urte luze
hauetan mobilizazioak ez du etenik izan.
Egia da udazkena inflexio puntua izan
zela, baina emaitzei erreparatu beste-
rik ez da egin behar ikusteko indepen-
dentismoa gora doala. Ezin dugu ahaztu
boto independentista gehiago izan zela

abenduarien 21eko hauteskunde inpo-
satuetan, erreferendumean baino. Bi hi-
labete luzetan independentismoak %5
egin zuen gora. Hori asko da.

**Hauteskundeak antolatuko balira, gora-
kada hori mantenduko litzateke?**

Noski. Eta ez hori bakarrik, Ciudadan-
sek diputatuak galduko lituzke. Azken
hilabeteetan VOXek ordezkatzeko duen
eskuin muturrearekin lehian ibili izana-
gatik, bozka eman zien jende askori be-
giak ireki zaizkie.

**Solastu gaitzen zure ogibideaz. Noiz eta
nola erabaki zenuen eskuin muturreko
mugimenduetan espezializatzea?**

Egia esan, ez zen erabaki zehatza izan.
Ofizioz ilustratzailea naiz eta, nahi gabe,
egun batean konturatu nintzen nire ogi-
bidea hau zela. Ez da lan erraza, fotoka-
zetaritza gaizki ikusia dago ekonomiko-
ki. Niretzat errentagarriagoa litzateke
ezkontzetan argazkiak egitea, lan hori
egiten duten argazkilariekiko errespetu
oso, baina horrek ez nau betetzen. Ar-
gazkilaritza ulertzen dut gizarte alda-
tzeko lanabes bezala.

**Ibilbide luze horretan jaso dituzun meha-
txu eta erasoen gainetik, non dago adie-
razpen askatasunaren bermea?**

Eskuin muturreko gaietan murgildu
nintzen jakinik konplexua izango zela,
eta jo-puntutzat hartuko nindutela. Ho-
rrek ez du esan nahi, berez, adierazpen
askatasuna zaintzen ei duen herrialde
honetan, arazoak izatea, zeinekin eta
konstituzionalista omen diren horiekin
lan egitean. Baina, hein batean hori da
ordaindu beharreko prezioa. Iaz biz-
pahiru ekitaldiko argazkiak egin nituen.
Adibidez, horietako batean, sei orduz
egon behar izan nuen etxebizitza bateko
leihotik lan egiten, kalera ezin nintzela-
ko jaitsi, eta beste bietan salaketa pare-
bat jarri behar izan nuen jasotako era-
soengatik.

**Kazetaritza eta argazkilaritza ezinbeste-
koak dira errelatoaren eraikuntzan. Zer
deritzozu hedabideek Kataluniako proze-
sua egin duten kontakizunaz?**

Desberdintasun handia egon da Espai-
niako eta Kataluniako irrati eta telebista
publikoen artean. Batzuen eta besteen
mahai-inguruei erreparatu besterik ez
da egin behar. TV3n, adibidez, indepen-
dentistak, federalistak eta espainolista

setatsuak agertzen dira eztabaidetan.
TVE1 jarrita, aldiz, kolore guztietako
espainolistei parte hartzen dute, baina
hori bai, sekula ez duzu independentis-
tarik ikusiko. Zentzu horretan, datuek
erakusten dute erabat faltsua dela Es-
painian TV3ri egotzi nahi izan dioten
aniztasun gabezia. Baina tira, urtarri-
lean ikusi nuenean, orduko Espainiako
presidente Mariano Rajoyk Espainiako
hedabideen lana txalotu zuela, ikaratu
nintzen.

**Kataluniako hedabideek neutralki jorratu
dute gaia, zure ustez?**

Seguruenik, bertako hedabideek ere
gabeziaren bat izango dute ikuspegi
kritikoari dagokionez, noski. Baina in-
formazioaren hedapenari dagokionez,
ez dago alderik. Espainiako hedabi-
deak etengabe ari dira, polizia indarren
babesari esker, gezurra publikatzen
eta gertakariak isilarazten. Lotsagarria
da. Gainera, sintomatikoa iruditzen zait
sortu nahi duten kontakizuna: inde-
pendentismoan sekula egon ez den in-
darkeria eta banaketa soziala irudikatu
nahi dituzte. Aldiz, gu gara indarkeria
eta errepresioa sufritzen ditugunak,
Estatuko egiturek erabat isilarazi, er-
deinatu eta zigortzen gaituzten bitar-
tean.

**Kataluniak aurrekaririk gabeko egunak
bizitu ditu eta zuk *Dies que duraràn anys*
liburuan bildu dituzu.**

Bai, horregatik, seguruenik, liburuak
sekulako arrakasta izan du. Katalanez
dagoeneko seigarren edizioa argitaratu
dugu eta gazteleraz eta ingelesez edizio
bana. Lan gehien egin dudana ikasturtea
izan dela. Normalean urteko 60.000 ar-
gazki ateratzen ditut. Bada, iaz 140.000
egin nituen. Egunero zen historikoa eta
histerikoa. Hiru edo lau hitzordu zeu-
den eguneko.

**Quim Torra presidenteak ale bat oparitu
zion Felipe VI erregeari.**

Interesgarria izan zen, batez ere, de-
dikatzeko aukera eman zidatelako. Ez
pentsa, presio handia sumatu nuen, bai-
na erabaki nuen onena zela aukera hori
erabiltzea urriaren 1ean sufritutakoa
eta Kataluniak duen askatasun irrika
helarazteko. Oker ez banaiz, erregeari
ematen zaizkion liburu denak bezala,
nazio-ondasunetan egongo da nirea...
[irri eginez amaitu du]. ■

Amul been nit ku leegalul

Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

**inor
ez
da
ilegala**

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545



KURSAAL ETA ESTRAPERLOA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Donostia, 1934ko irailaren 12a. Gran Kursaal kasinoan Straperlo izeneko bi erruleta mekaniko jarri zituzten abian. Makina haiei bultzatzaileen abizenen hasierak batuta jarri zieten izena: Daniel Strauss, Joachim Perlowitz eta lehenengoaren emazte Frieda Lowann –beste iturri batzuen arabera, gailua bataiatzerakoan soilik bi gizonezkoen abizenak izan zituzten kontuan, emaitza berdinarekin-. Herbeheretar judu hirukoteak aurrekari ilunak zituen zorizko jokoen esparruan eta, gainera, Espainian jokoak debekatuta zegoen 1924tik, Primo de Riveraren diktadura garaitik. Bigarren Errepublikan ere hala jarraitu zuen. Eta, hala ere, eroskeria medio, Straperloak Donostian martxan jartzea lortu zuten.

Badirudi iruzeko erlojuak eta dirua banatuz erosi zituztela baimenak eta, gainera, hainbat karguduni irabazien ehuneko bat jasotzea eskaini zieten. Gerora Straussek deklaratu zuenez, Madrilgo gobernuan zegoen PRR alderdiko buru Alejandro Lerrouxek %25 jasoko zuen, handik gutxira Kataluniako gobernadore nagusi izendatu zuten Joan Pich i Ponet %10, eta beste hiruk, tartean Lerroux beraren ilobak, %5na.

Horrenbestez iraileko arrats hartan hasi zen bolatxo bueltak eta hiru ordu



Donostiako Gran Kursaal kasinoa. 1934ko irailean Straperlo izeneko iruzurrezko bi erruleta jarri zituzten bertan. Hortik dator “estraperlo” hitza.

geroago gelditu, polizia, pistolak erakutsiz, Zurriola ondoko kasinoan sartu zenean. Erruletak hamahiru zenbaki besterik ez zituen eta, beraz, jokalariek beste joko batzuetan baino aukera gehiago zeukaten irabazteko. Teorian behintzat. Praktikan, hasi eta berehala konturatu ziren bertaratutakoak bankua nahi beste irabazten ari zela; croupierak nahi zuenean geldiarazten zuen gupila botoi bat sakatuta.

Straperloa iruzur baldarra zela garbi geratu zen arren, handik hilabete ingurura Mallorcan, Formentor hotelean berriro jarri zuten martxan makina pare. Straussek adierazi zuenez, Francisco Francok berak erruletak jartzeko baimenean zeresana izan zuen, Balear Uharteetako komandante militarra baitzen garai hartan. Astebate iraun zuten hoteleko kasinoan, Herrizaintza ministroak egoitza xteko agindu zuen arte.

“Strauss eskandaluaren” itzala, ordea, luzea izan zen. Errepublikako gobernu kontsebadorearen gainbehera faktore askok eragin zuten, baina Straperlo erruletak izan ziren Biurteko Beltzaren akabua. Ustelkeria kasua 1935eko urrian eman zen ezagutzera publikoki, ezkerreko oposizioaren eskutik, itxuraz. Ondorioz, hilaren 26an, Chapaprieta ministroak dimititu zuen eta handik hiru egunera orduan ministro zen Lerrouxek gobernu utzi zuen. Hurrengo hauteskundeak Frente Popular koalizio ezker-tiarrak irabazi zituen.

Orduz geroztik, “estraperlo” hitza amarru, azpijoko edo iruzurren sinonimo moduan erabiltzen hasi zen. Eta gerraostean merkatu beltzeko jardura bihurtu zen estraperloa. Egun, definizio hau du hiztegian: “Legez kanpoko salerosketa, bereziki lehen mailako produktuekin eskasia garaian egiten dena”. ■



GREZIAKO KULTURA MINISTERIOA

Egipto, Aigyptos baino lehen

Antzinako greziarrek Egiptori *Aigyptos* esan zioten, eta erromatarrek, aldiz, latinez, *Aegyptus*. Eta hortik dator Afrikako herrialdearen egungo izena.

Estrabon (K.a. 64 edo 63 - K.o. 19 edo 24) geografo eta historialari greziarrak jaso zuen toponimoaren etimologia; haren arabera, izen horrek “Egeoaz harago” esan nahi du (*Aegaeon uptyōs*).

Baina hori baino lehen bertakoek bestela esaten zioten beren herrialdeari: *Kemet*. “Lurralde beltza” esan nahi du, urteroko ur goraldietan Nilo ibaiak uzten zuen lohi iluna zela eta. Lur emankorretatik haragoko eremuari, basamortuari, aldiz, *Deheret* eta “lurralde gorria” deitzen zioten antzinako egiptoarrek. ■

Sagardoaren emakumeak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus



Fruituak bildu eta dolarerako bidean jartzeko sasoia da. Udarea (*Pyrus communis*), sagarra (*Malus x domestica*), mahatsa (*Vitis vinifera*)... Bide motz eta azkarra dirudi baina makina bat itzuliniguru eta hauen saihesbide landu behar dira fruitua muztio eta muztioa edari alkoholodun bihurtu arte.

Nire ustez, fruitu eta haziekin edari alkoholodunak egitearen arrazoi nagusiak bi izan dira. Batetik, uztak kontserbatzeko era bat da: alkohola irau-narazle edo kontserbatzaile denez, fruitu asko zenean gerora eta ondotox gerora ere fruitu horiek alferrik galdu gabe izateko era bat da. Bestetik, urak gaitzak eta izurriteak kutsatzen ditue-nean, hartzitu eta alkohola duen edari desinfektatuak balio handia du osasunerako.

Basatiak edo landutakoak, eskuera ditugun fruitu naturalekin egindako edariak elikaduraren eta osasunaren al-

detik osagarriak dira: elikadura osasuntsua. Eta nor arduratzen da gure kulturatan familiaren eta klanaren elikadura osasuntsuaz? Ba emakumeak!

Garai bateko hieroglifo, ikono eta imajinetan edari hauek egiten azaltzen direnak denak emakumeak dira. Edari horien sorkuntza eta zaintza bere esku zegoen, eta maiz naturarekin lotzen zituzten jainkosen gurtzaren parte ziren. Naturala da, fruitua emea da, emankortasuna...

Bi indarrek baztertu dute emakumea hartzidura horietatik. Lehena, edari horiek izateak eta gozatzek dakarten pozarekin eta osasunarekin sekula bat etorriko ez diren ustezko erlijioen eliz-ek sorginkeriekin lotu zituzten. Eta bigarrena, edariak, etxerako zirenak, negozio itzela bihurtu ziren, etxeko lana zena diru sorburu, alegia; eta hori ezin eraman zuten hagintari gizasemeek...

Elikadura osasuntsuan emakumeak agintzea ondo dago, bale. Baina plazer eta gozamenetan eta diru kontuetan manamentua izatea, hori ez, hori bai ezetz! Gizasemeek hagin makilarekin eta haginkadaka hagindu behar dute hor, jakina!

Sagardoaren eta ardoaren munduan antzeko bilakaera izango zela usaintzea ez da zaila. Historialariek azaleratuko dute. Pierre Errostege de Lancre inkisidoreak 1609an horrela deskribatu zuen Euskal Herria: "Sagarrondoen herria da; emakumeek sagarra besterik ez dute jaten, sagardoa besterik ez dute edaten eta beti prest daude tentazioaren sagarrari kosk egiteko". Gizaseme kristau antzutzailen ezin eramana. Eskerrak horren buelta ikusten ari garen; emakumeen esku dauden sagardotegi eta ardo upategi gero eta gehiago dago. Sagardoaren eta sagardozaleon onerako! Ardo txurruteroek zuek esan... ■

JAKOBA ERREKONDO

"Gure baratzetik eta landareetatik ikasteko tresna da agenda"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO



Extra, extra! Kalean da dagoeneko *Landareak Lantzen* bigarren zenbakia, 2019 urterako agenda-liburua! Udan ez da oporrik izan Jakoba Errekondo eta Antton Olariagarentzat, eta kurtso berriaren hasierarekin batera hemen da beste behin ARGIArekin elkarlanean egindako uztia: Errekondoren azalpenekin eta Olariagaren marrazkiekin osatutako agenda-liburua. Lana ezin da amaitutzat eman, dena den: erabiltzailearen nota, zita eta argibideekin osatua izateko pentsatua dago *Landareak Lantzen*.

Agenda-liburuaren bigarren zenbakia duzue aurtengoa. lazkoa ezagutu ez zutenentzat, zer da zehazki *Landareak Lantzen*?

Urtean zehar lurrarekin eta landareekin egiten diren lanak biltzeko agenda-liburua da. Urte sasoi eta hilabete bakoitzean egin beharreko lanak azaltzen dira bertan, lau alorretan banatuta: baratzea, basoa, fruitu-arbolak eta lorategia. Horrez gain, ilargiaren zikloak ere azaltzen dira liburuan. Bestetik, guk egi-

ten ditugun lanak apuntatzeko aukera ere ematen du liburuak, agenda arrunt baten moduan.

Ale berri honek badakar nobedade edo berezitasunik?

Lanen agenda urtero gutxi gora behera tankerakoa da, lanak ez baitira aldatzen, baina aurten lan eta informazio osagarri batzuk gehitu dizkiogu. Gainera, bigarren ale honi berezitasun bat eman diogu: baratze lan tresnei eskaini diogu agenda. Mozteko zein tresna erabiltzen diren azaltzen da, biltzeko zein ontzi edo saski mota dauden, lurra lantzeko tresna ezberdinak... Lanabes horiei toki bakoitzean ematen zaizkien izenak ere bildu ditugu, hiztegi aberats hori jasotzeko.

Zein gauza apuntatzen dira baratze lan agenda batean? Zer du Errekondok idatzia bere *Landareak Lantzen*en?

Bada, hazi bat nondik ekarri duzun, noiz erein edo landatzen duzun, ongarrria noiz egiten duzun... Garai jakin batean arazo larriren bat ikusiz gero,

adibidez, apuntatu. Eta gero atzerako ibilbidea egin: ikusi sail hori noiz ongarritu zenuen, zein ongarrirekin, zein landare zituen inguruan edo zer egon zen lehenago bertan landatua. Agendak lanak hobetzen laguntzen du, eta arazoak zergatik izan daitezkeen ulertzen. Azkenean, gure baratzetik eta landareetatik ikasteko tresna da agenda.

Aurten ere fidel mantendu zaizu Antton Olariaga, bere marrazkiekin lana osatuz. Ongi moldatzen zarete lanean...

Bai, bai, oso ongi moldatzen gara, eta nik asko ikasten dut berarekin. Askotan, marrazki batekin oso ongi azaltzen du nik idatziz azaltzeko bi orri behariko nituzkeen zerbait. Bera ere gustora dagoela ematen du, beti galdezka ari da, izenen inguruan, eta kasu honetan, tresnen inguruan: zertarako erabiltzen diren, nola, eta zein gorpuzkerarekin. Luxua da Olariaga ondoan izatea elkarlanerako beti prest. Biok usurbildarrak izanik, gainera, ederki ulertzen gara... (kar, kar). ■

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zer bait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.


www.argia.eus/azoka • @argiaAzoka

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

Borrokanrrola faxismoaren aurka CDa

Borrokanrrola, faxismoaren eta arrazakeria-
ren aurkako soinu banda da. 67 minutuko
iraupena du eta 20 kantu biltzen ditu, talde
hauenak: Stupenda Jones, Ihesbide, Bajo
Presion, Kaleginez, Radio Aktiva, Des-Kon-
trol, Akatz, Infernuko Panpinak, Suspenders,
Trigger Travis, Macarrada, Estricalla, Itziarren
Semeak, Mortis Causa, Sermond's, Oliba Go-
rriak * Pleonakis Plektos, Dale Ke Aun Respi-
ra, Pib All Stars eta The Sparteens.



7 euro

34
gai
musutruk

Irailaren 20an, 10:00etan...

ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu **argia.eus/azoka** webgunean.
Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!



Bizi Baratzea lamina 21 eta 22

Antton Olariagak eta Ainar Azpiazuk eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.

Biezko baserrian egonaldia

Asteburu pasa.

RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA SARIAK
30 URTE

Zeruko ARGIAko orrietara nazioartea ekartzen zuen kazetaria



Estitxu Eizagirre Kerejeta
 @eeizagirre

Aurten 30. Rikardo Arregi Sariak banatuko ditu Andoaingo Udalak. Urteurrena ospatzeko, aurtengo ekitaldia berezia izango da eta urriaren 26an egingo dute, 19:00etan, Bastero Kulturunean.

1960ko hamarkadan Zeruko ARGIA irakurtzen zutenek gogoan izango dute egunkariaren formatu handi horretan argitaratzen zen astekariak lehen orrietan gehienetan eramaten zuela Rikardo Arregi gaztearen sinadura (1942, Andoaingo-1969, Eibar). Nazioartean pilpilean ziren albisteak jorratzen zituen, analisia gehituz beti ere, "Herriak eta gizonak" sailean. Egun ere gustura irakurtzen dira artikulu haiek. Adibiderako, hona bere artikuluetakoa bat, duela 50 urte, 1968ko apirilaren 3an *Biolentziaz* izenburupean argitaratu zuena:

"Biolentzian bizi gera. Errepresentazioa demokratia krisi gogorrean eta garratzenean arkitzen da. Ba dirudi biolentzia besterik ez dagoela korapilko politikoei soluzioren bat arkitzeko. Menperatutakoa ta politikakua dana, erreboltatua da. Eta gizon erreboltatua biolentzia da.

Egunerokoak, aldizkariak, irratia, telebista, abestiak etab. biolentzian bizi dira, nun-nahitik biolentzia dariote.

Psikologoentzat biolentzi era des-

berdiñen diferentziazioa kontzientziapeko motibazioetan dago. Biolentzirik xamurrena jolastia dana da. Jolasean bizkortasuna eta arintasuna erakusteko erabiltzen dana. Biolentzi au ona da, bizitzaren serbitzuan dagoelako. Ba da beste biolentzi era bat, psikologoaren iritzian, gure jardunerako askotaz ere inportantzi aundiagokoa dana, defentsarako erabiltzen dana da. Reakzioan finkatzen den biolentzia da, gaitzaren kontra sortzen dana. Arrazoimenean sustraitu diteketa eta bizitzaren serbitzuan egon. Gaitza, biolentzia reazio bezela sortuarazten duena, askotan ez da benetakoa, irudimen bat baizik. Politikariak bere asmoetan maizegi erabiltzen dutena. Gerla guztiak, gaur egun, Herri bakoitzak bere buruaren defentsarako dela siñistu erazi ezkeror dira posible. Oso zailla da, ordea, gerlan dabilzan biak bere buruaren defentsagatik dabilzala baldin badiote zein den agresorea ta zein jarri duten defentsan erabakitzea. Ala ere puntu onek bi egi erakusten dizkigu: batetik, jendea gerrara mugitzeko bere defentsarako dela siñistu behar erazi zaio, bestetik, posible dela defentsako gerla bati dei egiñaz Herri bat askota ere erreago zuzentzea ta gobernatzea. Ba da beste biolentzi

bat fustraziotik sortzen dana. Biolentzi au ezereztatzaillea da. Beste bat menderatuarena da.

Ori psikologiaren aldetik. Eta politikaren aldetik, zer? Munduan zear unibertsitario politikatuak biolentziaren bideak aukeratzen ari dira. Biolentzi orregatik dimititu du Belgika'ko gobernuak. Ori da Estatu Batuetan zenbait beltzek aukeratu duten bidea. Langilleak sindikatueta mesfidatzen asten diranean artzen dutena. Ego Ameriketako gerrilleroena, Vietnameko. Biolentzia, beraz, or dago. Ukatzea edo kontsiderazioan ez artzea aingerukeria litzake.

Politikan biolentzia bi eratak da: sufritzen dana ta egiten dana. Biolentzia sufritu, esate baterako, behartsuak, menderatuak eta menperatuak egiten dute. Aspaldidanikoa den ezkeror, asko irauten duen ezkeror, normala dirudi, naturala, legezkoa, berezkoa. Ta oraiñ dator galderarik garratzena, zein da biderik egokiena biolentzi ortatik iges egiteko? Bai ote dago zenbaitetan biolentzia beste biderik? Ez ote da seiñale ori, erantzun biolentzia beste biderik? Ez ote da seiñale ori, erantzun biolentzia aukeratzea, gaiñontzeko bide ta erantzun guztiak agortu dirala?". ■



Allande Etxart

“Abertzaleek ere historia ofiziala, erreala balitz bezala hartzen dute sarritan”

Altzai, 1950. Bildozen bizi da egun, erretretan. Elektronikaren ofizioa ikasi zuen gaztetan. Xiberoko Botzako sortzailea, iratiaren teknikari lanetan aritu izan zen hogei urtez. Sohütako Epherra Ikastola sortu eta hamar urtez idazkari izan zen bertan. Areago, *Euskadi Information* agerkariaren kudeatzailea izan zen hamaika urtez. Askotariko pertsona. Historiaz arduratua bizi da egun. *Matalaz ez balitz zaldiz agertü* (Herexak argialetxea) eleberri historikoa hizpide solastatu gara. Zuberoako herri xehea XVII. mendean nobleen aurka erreboltatu zela ezagun zaigu. Zerendako altxatu zen, baina?



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zuberoako historia ikertu duzu, baina ez zara historialaria. Alta, buru-belarri ari zara artxiboetan.

Ez naiz historialaria, ez ikasketaz ez bes-tenaz ere. 64 urteetan –erretretan sartzean– ez nintzen hasiko historia iker-tzen ere. Horregatik egin dut eleberri historiko hau, nolabait. Zuberoako his-toriaz anitz irakurri dut, eta bertsio dife-renteak direla ohartu naiz. Gehienetan, historialariek errepikatzen dute beste batzuek aurretik idatzi dutena, ez denek, bistan da. Manex Gohienetxe edota Jean Louis Davant salbuespen dira, besteak beste. *Matalazen* historian (Bernard Gohienetxe, *Matalaz*. Mitikile ?-Mau-le-Lextarre, 1661) kontraesan franko zegoela ohartu nintzen. Zuberotarrak al-txatu zirela badakigu, baina arrazoiak ez dira argi ageri. Zerendako altxatu ziren? Horren xerka arakatu ditut Paue, Bor-dele eta Tarbeko artxiboak; Gers depar-tamenduko Auchen ere ibili naiz, baita komentueta liburutegietan ere.

***Matalaz ez balitz zaldiz agertü* izenburuak badu azpiko izen esanguratsua: *Handien zorra eta ttipien Herria artxibetan*. Zein izan zen zuberotarren altxamenduaren arrazoia?**

Konplikatua da historia azaltzea... Nik Zuberoako laborariak ontsa bizi zirela ikusi dut, edo hala uste dut. Goserik ez zen. Baziren pobreak parroketan, bistan da, baina oro har, laborarien testamen-duetan ageri denez, ongi bizi ziren. Par-lamentuan bazen dirua eta herritarren ezteiak aski oparoak ziren. Auzia hau da: Oloroeko apezpiku Maytieko Arnaud III.-ak 40.000 mila libera gastatu zuen, alta, 80.000 liberako jesaitea [mailegua] hartu zuen. Hori da handien zorra. May-tieko familia Gramonteko jauntxo eta kondeen segidakoa zen, handiak ziren. Afera hartan, Jean-Armand Peyrer naha-sita dago, *Treville* ezaguna. Nobleen arte-ko afera bat dago, *Detxema* deitua (zerga gisakoa) ez zuten behar bezala kudeatu. Iruzur egin zuten, naski. XVII. mendean, Frantziako apezpikuek Erregeari detxe-

ma ematen zioten. Konparazionerako, 1649an, nobleek herri xehearen –labo-rariak gehienak– detxema hartu zuten, 140.000 libera, baina 80.000 liberaren erabilera ez da liburuetan argiki ager-tzen. 1659an Bordeleko Parlamentuan aztertu zen afera. 1660an, Zuberoan errebolta izan zen haatik.

Beñat Gohienetxe *Matalaz* horien artean zegoen. Nor zen *Matalaz*?

1600 urte aldean sortu zen, ez da urte zehatzik ezagutzen. Bordelen egon zen, teologia egin zuen unibertsitatean, eta zuzenbidea ere ikasi zuen, itxura batez. Altxamendu delakoaren inguruan ba-daude paperak artxiboetan, baina bada ere kontraesan franko. Hainbat kontu argi dira, baina ez denak.

***Matalazek* zuberotar kontzientzia bazu-keen...**

Herriaren kontzientzia ba ote zuen? Bai, hala uste dut. Mitikileko herritarrak





bahituak, atxilotuak eta preso hartuak izan ziren bere herrian.

Haien defentsan aritu zen *Matalaz*.

Ez da aise horiek guztiak zehaztea. Lur komun gestioa biziki inportantea zela ageri da: mendietako zergak, oihanen, bideen eta lurren kudeaketa...

Allande Oihenarten atsotitz batek edeki islatzen du garai hura: "Ez horak zahia jan, ez oiloer ützi" / "Le chien ne mange pas le son mais il ne laisse pas les poules en profiter".

Nobleen jarrera duzu, berentzat nahi dute oiloen lekua, herritarrentzat gero eta gutxiago utziz. Alta, horretaz ere interpretazio ugari egin daiteke, irakurketa ezberdinak.

Konparazionerako, horra hor *Matalazen* azken hitzak: "Agian, agian, egün batez jeikiko dira egiazko xibetorarrak, egiazko eüskaldünak, frantses zorrikeria horren

ohiltzeko". Benito Lertxundik "tiranoen ohiltzea..." erranez abestu du eta herriak "tiranoen hiltzea..." bihurtu.

Hori bera. Hori argitzea ere interesgarria da, Jean Louis Davantek idatzi du horretaz. Esaldi bat nola ulertzen den eta zer bilakatu daitekeen, baita azken 50 urteetan beste zentzu batean nola erabili den...

Herria altxatu zen, edozein gisaz.

Niretzat inportanteena hori da, herria altxatua zela, artxiboetan aurkitu dudana. Herria Ünduriango zubian zegoen, erregearen ehunkako zaldun heldu dira, pitinka-pitinka, eta biharamunean herritar saldo bat hilik izan zen Sohütan. Familiek ez zituzten haien gorpuak errekuperatu, ez zuten elizetan ehorzketak egiteko baime-na ukan ere. Gorpu gabeko meza emateko aukera izan zutela diote paperek. Erran nahi baita, Sohütan 400 gorpu bota zutela zulo batean, eta beste 150 herritar gatibu hartu. Hori izugarria izateaz gain, gorpuak


han nonbait daudela aditzera ematea da ene nahia.

Nobela historikoa da. Iban da liburuaren hariaren eramailea, gaur egungo pertsonaia. Gibelera egiten du historia ikertu ahala. 2015eko urtarriletik 1300 urtera arte doa. Nor da Iban?

Iban da nik bizi arazi dudan pertsonaia, pertsonaia nagusia. Artxiboetan ari da, kuriositatez, eta ziriaz ere aritzen dena. Ni ez naiz kapablea nire buruaz idazteko eta pertsonaia hori eraiki dut ene gogoetak azaltzeko. Ibani nortasun ageriko bat eman diot.

Sohütako ikastola sortu zeneko garaia aipatzen duzu. *Matalazen* garaiko eta egungo erresistenteak lotu dituzu. Alta, kritikoa zara.

Historia ofiziala eta herritarren memoria kontrastatu nahi izan ditut hainbat pasartetan. Adibidez, gutun batek agertzen du *Matalazek* protestanteen aur-



ka egin zuela, baina dokumentuetan ez da deus agertzen. Orduko erregearen *Gutun gezurtia* bezala ekarria da, historia ofiziala da. Maleruski, ez soilik franximantak, hemengo abertzaleek ere “historia ofiziala” egiazkoa balitz bezala hartzen dute sarritan, ofiziala erreala balitz bezala. Nik hori ez dut ongi atzematen. Antzinako nobleek bazuten boterea, kudeatzen zuten kontaketa, gutun hori idatzi zuten, beraien ikusmoldea zen, baina gutuna herriaren kontra idatzia izan zen. Beraz, oraingo abertzale batek gutun hori ontzat eta fidagarritzat hartzea ez da ona. Ez da zientifikoa. Baina, maleruski, historia ofiziala horrela idazten da usu.

Abertzaleek ere kasu eman behar dute historia kontatzean...

Ez dute nahitara egiten, baina ezaxolaz, erraztasunez edo ikertzeko alferkeriaz...

Joseba Sarrionandia aipatzen duzu liburuan. Ibanek ezagutu zuen, antza.

Ibanek naski, nik ez. Joseba Sarrionandia hemen ibili zen garai batean, Zuberoa ikertzen edota ezagutu zuen. Nik pasarte hori asmatu dut, hau errateko: Zuberoa herri okupatua izan da, zuberotar

» “*Matalazek herriaren kontzientzia ba ote zuen? Bai, hala uste dut. Mitikileko herritarrak bahituak, atxilotuak eta preso hartuak izan ziren bere herrian*”

» “*Iban da nik biziarazi dudana pertsonaia, artxiboetan ari dena, kuriositatez, ziriaz ari dena, pertsonaia nagusia*”

» “*Sohütan 400 gorpu bota zuten zulo batean, eta beste 150 herritar gatibu hartu*”

tar anitz fantses hizkuntzaz menperatua eta asimilatuta izan da, sumisio handia pairatu dugu hemen. Frantziaren aldeko gerletan parte hartu, haren alde egin eta hura onartu dute anitzek, ez denek hala ere.

Espiritu berria ernatzen ari da, naski.

Bai, adibidez, iaz *Dantz’Haka* ikusgarria eman zuten Barkoxeko Etxahun elkartearen eskutik. Agertu zuten halako erresistentzia molde bat. Orreagako batailatik abiatu eta berriki “Ahateen afera” batean CRSen aurka oldartu ziren laborariak obra horretan agertu ziren. *Matalazen* espiritua azaldu zuten gisa batez.

Zuberotarrendako gaineratiko euskaldunak *manexak* gara. Manexok konprenitzen al dugu Zuberoa?

Nik galdea beste aldean emanen dizut: zuberotarrek konprenitzen al dituzte *manexak*? Enetako *manexa* hitza edo deitura berria da, 1950. urtera arte ez zen entzuna. Garai hartan, euskararen eta euskaldun izatearen apaltze bat eman zen. Zuberotar eta euskaldun izatearen sentimenduaren beheraldia, eta horrekin lotu zen fantasia gisako bat: gu, zuberotarrak, besteak baino hobeak

gara, hobeki kantatzen eta dantzatzen dugu... Hartaz, beste euskaldunak *manexak* dira, eta ez bakarrik Bidasoaz haranzkoak, denak, Pagolatik haragokoak ere bai. Orduan, baduzu urguilu faltsu bat anitzengan, ez denengan. Alta, *manex* hitz hori erabiltzen dutenen artean ez dago gehiago euskaldunik, gero eta gutxiagorik. Erabiltzen duenari galde-tzen diozu “nola izkiriatzen duzu *manex* elea?”. Ez daki idazten. Entzun du, eta halako superioritate gisako bat ager-tzen du. Nik ez ditut maite, prefosta.

Pastoralaz mintzatzean, ezinbertzekoa da Etxahun-Iruri [Pierre Bordazarre] aipatzea.

Oso inportantea izan da Etxahun-Iruri. 1944ko gerra ondoko garaian [II. Mundu Gerlaren ondorenean] frantsestasunaren eragina azkartu zen hemen. Eta Aljeriako Gerlak areago azkartu ere, 1958 urtearen ondoren. Euskal sentimenduak behera egin zuen. Etxahun-I-

ruk bestelako bat landu zuen. Bertzeak bertze, *Agur Xiberua* kantaren eraginez aldaketa izan zen zuberotarren artean. Pastoralan, Euskal Herriko pertsona bati pertsonaia nagusiaren rola eman zion Etxahun-Irurik.

2016an Jean Pitrau pastolara jokatu zen, Pier Paul Berzaitzek idatzia.

Oso garrantzitsua izan zen hori ere. Pastoral ez da, naski, hoberenatarik izan, baina inportantea izan da laborari bati buruzko izatea, oroitaraztea Pitrauren garaia eta haren testuingurua, bere herrian jokatu izatea. Pitrau hil zenean nik 24 urte nituen, ez dut laborari gisa ezagutu. Ezkerreko laboraria zen, hori izan zen bere berezitasuna.

Pastoral horretaz zure iritzia nahi nuke.

[Uzkur ageri da...] Pastoralan Parisko ministroa eta Paueko Laborantza Ganbara oposizioan ageri dira, ados. Baina Pitrauk tokiko laborarien edota militanteen kontrako oposizioa ere egin zuen,

eta haiek ere haren kontra egin zuten. Bazen hori ere, eta pastoralan ez da ageri. Badakizu, ez da aise... Pastoral Monsanto Company-ari aipua eginez finitzen da, *Charlot*-en joko pixka bat eginez, beraz, komedia maneran, ez tra-jerian. 46 urteetan hiltzen den militantea, horrela bukatu behar zen? Amaiera *La Petite Maison dans la prairie* iruditu zait, amiñi bat horia edo arrosa...

Pastoral indartsu dago gaur egun.

Etxahun-Iruriz geroztik bereziki, Pastoral herrikoia bihurtu da, lirikoki kontatua. Kantak eta dantzak landu dira biziki, jokolariak eta antolatzaile berriak aldikal ari dira. Hots, herriek hamabost urteetan behin egin ohi dute pastoral, eta bertze belaunaldi batek hartzen du segida, beraz aldatzen doa.

Alta, egun edonor izan daiteke jokalaria pastoralan. Ona al da? Txarra ote?

Edonor sartu ahal dela? Bai. Enetako damurik bada hor, euskara ez dakienak ere parte hartzen baitu. Damugarria da euskaraz ez dakiena kantuz aritzea. Horregatik, euskara ikastea biziki inportantea dela erraten dugu, euskaraz jakin gabe pastoralan aritzea kontraesana da, gure kontraesana da. Baina jinen da aldaketa hor ere, edo hala nahi nuke. Izan ere, aldi berean, jende anitz engaia-tzen da, herriaren mugimendua handia da, 200-300 jende aritzen dira, 100 jende taula gainean, bertze 100 inguruan, antolaketa izugarria da.

Azkenik, zure liburua bikoitza da, frantsesez ere izkiriatua. Si Matalas ne s'était pas montré à cheval izenburukoa. Zergatik?

Hemen badaude Zuberoako historiaz idazten dutenak, frantsesez baino egi-ten ez dutenak, haiendako egin dut itzulpena frantsesera, irakurlearentzat ere bai, euskaraz ez dakitenendako. Li-buruan badira zuberotar anitz aipatuak, euskaraz egiten ez dutenak; horiek zenbaitetan soberazko pitokeriak errepika-tzen dituzte, beraz, nahi nuen haiek ere konprenitzea. Egia erran, itzulpen kax-karra egin dut, pasarte batzuk pisuak dira, beraz, lehena eta azkena.

Liburuak ukan al du oihartzunik?

Bai. Zuberotarrek, baita hemendik kan-po bizi diren euskaldun zenbaitek ida-tzi didate, edo telefonoz deitu. Gustatu zaiela erran didate. Kontent naiz. ■

“LURRAK MEMORIA ATXIKITZEN DU ETA HORREN XERKA JOAN BEHAR DUZU”

Matalaz ez balitz zaldiz agertu eleberria bitxia da, bai edukiz bai formaz. Allande Etxartek historia arakatzeko paleografia ikasi du, baita ziria erabiltzen ikasi ere.

Zer da paleografia?

Paleografia da antzinako idatzien deskribatzeko metodoa. Artxiboetan badira idazmolde zaharrak, gehienak idatziak dira. Notarioek, lege gizonek, idazkariek, badute beraien idazmolde berezia, denak eskuz idatziak dira, anitz kopiatuak ere bai, beraz, eleen laburbiltzeak, kontrakzioak erabiltzen dituzte, eta horiek behar dira ikasi. Bi urtez egin nuen Paueko artxiboetan formakuntza, eta orain talde bat biltzen gara hilabeteen behin, entseguak eta ariketak egiten ditugu, kontrakzio horiek gogoz ikasi behar dira, zorrozki edo kasu handi emanaz.

Ziria eskuetan ari zara. Liburuan hori ere ageri da. Xehelaria zara.

Herexak edo aztarnak xerkatzen ditue-na da herexalaria. Historialaria baino herexalaria naiz, beraz. Xehela makila txiki bat da, ziri berezia. Hurritza da ziri

sentsiblen. Ziriaren edo xehelaren bi-tartez sentitzen da lurraren irradiazioa. Erradioestesista edo zahori gisakoa naiz, irradian aritua naizenez hori ere landu dut. Bilaketa berezia da. Konparazione-ra, ura xerkatzea oso zaila edo gogorra da. Urak bost edo zortzi metrotan barna daude.

Azaldu iezaguzu zure esperientzia.

2014an suertatu nintzen Ahüzkín, Sohütako gizon batekin, bere ziriare-kin ari zizun. Elekrika eta gailu lodiak zituen. Nik banuen sentimen gisako bat lehendik, baina orduan nabaritu nuen sentsibilitate hori gehixeago, pertsona denek ez dute dohain hori. Lurra me-moria atxikitzen du eta horren xerka joan behar duzu, irradiazioak kausitu ahal dituzu. Hiru hilabetez aritu naiz, aztarnak atzeman ditut. Duela 2000 urte jendea muinoetan bizi zen, mendixke-tan, etxebizitzak han zituzten eta behe-rean, ehiz tokiak edota basoak zeuden. Geroago ikasi zuten zuhaitzak kentzen eta bizitokiak behean eraikitzen, or-dokietan.

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gorria maite zuen amaxinoa



Xabier Etxaniz Erle

Uda iristearekin batera lau ipuin berri aurkeztu zituzten Ikas-eko lagunek. Lauak itzulpenak eta estilo ezberdinekoak; horietako bat, *Gorri!*, esku artean dugun lana eta, oker ez banago, Alice Brière-Haquet idazle oparoaren aurreneko liburua euskaraz. Liburuaren azala gorria dugu, nola ez, zuri-beltzarekin jolastuz irudi bat (basoa eta bidea?) eta egileen izenak eta izenburua azaltzen dira bertan. Gorria dugu, bai, liburu honetako elementu garrantzitsua... beno, gorria maitea duen amaxino batekin hasten da dena: "Behin bazen, non-bait, han, oihan xoko batean, amaxino bat oso pollita. Matelak zituen gorriak, arrasondo bikain gorria, zaia xarmagarri gorria, bai eta erridau gorriak. Hori zuen kolore maiteena". Horrelaxe ekiten diote egileek ipuin honen kontakizunari.

Eta azalean gertatzen den bezala barnean ere zuria, beltza eta gorria erabiliz eginko ilustrazioak ageri zaizkigu. Irudiak trazu handiz eginak dira, berriak, indartsuak... baina baita duela mende bateko euskal ilustratzaileek (Txikik eta) eginkoen aire bat dutenak. Amonak alabasoari, bilobari, egiten dizkio hainbat opari, bi galtzerdi belarrean jostatzeko, bi eskularru onddoen biltzeko, lepoko luze-luzea hotz handietako berezia, belarri kuktzeko bat eta, azkenik, txano gorri bat. Baina denetan amonaren opariak arazoak sortarazten dizkio bilobari (bareek uste dute galtzerdiak marrubiak

Gorri!

ALICE
BRIÈRE-HAQUET

Ilustrazioak:

Élise Carpentier

Itzulpena:

Jean-Louis Davant.

Ikas, 2018.

38 orrialde,
haurrentzat

*Alice Brière-Haquet (1979);
idazle, ikerlari eta itzultzaile
frantziarra.*



direla, untziek eskularruak sagartzat hartzen dituzte, zezena lepokoaren atzetik joaten da, okilo batek mokokatzen dizkio belarriak har baten bila, erresiñolak txanoa mokokatzen du gerezia zelakoan...) azkenik, amaxinok burutik oinetarainoko jantzi gorria egiten dio, oinetako gorriak, galtza gorriak, jaka gorria... eta txano gorria.

Eta biloba oihanean barnatzen da: "Horrekin ez zaizu, sinets nazazu, deus gertatzen ahalko".

Eta amonaren hitz horiekin amaitzen da ipuina, edo ipuinaren testua, izan ere, irudian basoan barrena ageri zaigu neskatoa, txano gorri, eta zuhaitzen artean otsoa du begira...

Istoria sinplea, zubereraz ere Ikas-en webgunetik entzun daitekeena, eta hegoaldekoontzat zenbait hitz zailtxo gerta badaitezke ere, erraz jarraitzen dena eta jolaserako aukera paregabea ematen duena (eta hori guztia bost eurotan). ■

» DISKOA

Amaiera akatsgabea



Montserrat Auzmendi del Solar

Abuztuan zehar, bakarlari, talde eta orkestrak aritu dira Musika Hamabostaldiko aurtengo edizioan. Edizio ona, mamitsua, non publikoak oso ongi erantzun duen. Hamburgoko Orkestrak, Rotterdamekoak eta Budapestekoak zapore ona utzi dute, baina Sinfonieorchester Köln taldeak zur eta lur utzi gaitu, dudarik gabe.

Esan daiteke Koloniako orkestra hau Europako irratia orkestra nagusietako bat dela, bere 65 urteko ibilbidean, oso malgua eta moldakorra, baina esan behar da arrakastaren zati handi bat Jukka-Pekka Saraste zuzendariari zor diola. 2010-2011 denboraldian Saraste izendatu zuten zuzendari titularra eta soinu eta dotorezia bereziak eman dizkio finlandiarrek taldeari.

Horren froga Hamabostaldiaren amaierako kontzertua izan zen. Hector Berliozen *Requiem op. 5* obra erronka izugarria da edozein orkestrarentzat, hain obra aberatsa eta orkestrazio ikaragarritzkoa denez. Sarastek obraren ezagupen sakona duela erakutsi zuen. Inongo gehiegikeriarik gabe atera zuen pasarte bakoi-tzetik behar den sentimendu eta ñabardura. Requiem hau ez da ohiko lan erlijiosoa. Berlioz bera ez zen oso gizon elizkoia, eta horrengatik ohiko bideetatik alde egiten du. Ez du sentimendu erlijioso barnerakoia ustiatzen. Horren ordez, azken judizioaren kontakizun epiko eta handia egiten du.

Donostiako Orfeoia lan fin eta delikatu egin zuen, doi-doia uneoro, oso enpastatua orkestrarekin. Bestalde, bikain bat eman

SINFONIEORCHESTER KÖLNLEONEA MUSIKA. (HAMABOSTALDIA)

Zuzendaria: Jukka-Pekka Saraste.

Donostiako Orfeoia.

Zuzendaria: J. A. Sáinz Alfaro.

Tenorea: Maximilian Schmitt.

Egitaraua: Hector Berliozen

"Requiem op. 5".

Kursaal Auditorioa.

Abuztuaren 1a.

behar diogu bakarlariari. Maximilian Schmitt tenoreak ahots ederra eta ongi menderatua erakutsi zuen. Agian, agudoren bat zertxobait behartua atera zitzaion, baina zinez gozo eta distiratsua izan zen haren kantua.

Saio espektakularra, beraz, jaialdiari behar bezalako bukaera emateko. ■



Jukka-Pekka
Saraste
orkestra
zuzendari
finlandiarra
(Heinola, 1956).

Itsasontzi bat harresietan

SODADE IKUSKIZUNA

Noiz: Abuztuaren 22an.

Non: Iruñean, Ziadela parkean.

Harresietako Jaialdiaren baitako ekitaldia.



Irati Majuelo Itoiz



Bi makil eta mihise bat. Haur baten uda-ko txabola izan zitekeen, gau sargorien babesleku. Baina ez, itsasontzi bat da eta hiri erdian dago. Harresiak besterik ez ditu inguruan, baina arreta jarriz gero, ez dago harresirik: itsasoan gaude. Haizea fuerte dabil, zabal-zabalik oiha-lak. Kontrabaxuak sokak tenkatu ditu eta ahots batek gidatu gaitu kantuz; nor bere portura.

Gaua da Iruñean, eta iluntzero bezala, aspaldian erbusteratutako gizon bat hurbildu da itsasertzera, haurtzaroko eta helduaroko ametsak elkargurutzatu eta desorekatzera. Itsasontziaren mas-tatik, bere txikitako nia ikusi du hurre-ratzen: “Izeba, nik hara joan nahi dut. Nora, ortzi-mugara? Hurbildu ahala, or-dea, urrundu egiten da”.

Utopia horretatik abiatuta, apurka-apurka hasi dira tripulazioko kide guz-tiak agertzen: funanbulista, dantzaria, kontrabaxu-jolea, abeslaria, akrobata, orekaria. Gutxinaka biluztu dute gure itsasontzia ikusleen aurrean. Soka amai-

gabe batek mugiarazten du fadoaren erritmoan, olatuen joan-etorrian, bi gurpilen polean eurek bizitza harat-ho-nat ibiltzen duten eran. Oreakari desafiao egiten dabilta orekariak, sokaren gai-nean ibilian, munduaren hauskortasuna kantuz kantu akrobazietan harilkatzen duen jolasean. Itsas zabalean zabuka, geure imajinazioari itzulipurdia egin diote eta haiekin batera ezerezera jauzi egitera gonbidatu.

Isiltasuna. Kontrabaxuak bere soka bakoitzarekin egin nahi du dantza, *loop* amaigabea. Tango doinuak heldu dira portu aldera. Abeslariaren doinu kar-tsuen laguntzaz igo da orekaria soka artera, bere buruari tango bat eskaintzera. Bakarrik, heldulekurik gabe, bai-na bere etxeko egongelan egonen balitz bezala egin du dantza lurretik hiru metrora. Laster batu zaio bigarren ore-karia, gero hirugarrena, elkarrekin eta elkarren begiraden babes bakarpean, gurpilek mugitutako soka gainean az-ken erokeriak egiteko. Orduan esnatu

dira harresiak, eta gauaren posibilita-teei keinu eginez, dantzarien pausoak Ziadela harrizko hormetan biderkatu dira.



Argi-itzaletan, itsasertzera hurbildu-tako gizonaren hizketak olatuen gisa jarraitzen du, itsasoaldi osoan zehar harilkatutako hausnarketak musikaren erritmora kulunkatzen. Olatu bat iru-dimenera. “Ozeanoak marraztu zeruert-zak irekitzeko”. Olatu bat errealitatera. “30 urte ditut eta bakarrik nago itsason-tzi honetan”. Olatu bat memoriara. “Itsa-sontzia nire aurpegia da”. Azken olatua. “Hainbeste nabigatu ostean, zimurrak baino ez ditut nire barnean”. Kontra-baxuak abisatu gaitu: ehunka poema aireratu dira Iruñeko itsasoetan. Haizea baretu da. Itsasontzia ainguratu dute. Argiak itzali.

Mekanika poetikoa da Cirque Roua-ges-ek oparitu diguna: bizitza bat soka baten gainean, gurpilen antzera beti ibi-li badabilena, eta izarapetik izarpera amets eginarazten diguna. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Oier Guillanek, kazetari, idazle eta antzerkigileak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.


4	2			7		9		
		7				5		
				6	4			2
2		6	5			3	8	1
	1		6		3		9	
5	3	8			9	4		6
6			4	9				
		5				6		
		3		5			4	7

				2		8		3	9
				6	9	1			
		2		1			6		
2							7		
5	6						2	4	
	1							8	
	3			2		4			
		4	5	8					
6	5		4		1				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Miatuz. 2. Uhartea.
3. Irribera, jostaria.
4. Koaderno. 5. Nardo.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak falta direnak hizki berak direla kontuan izanik, hori bai, hurrenkera ez da zertan bera izan.

1				S	E	N	G	U
2	B			A	R	T	S	U
3	I	R				T	Z	A
4	E	S	K				D	E
5	M	A	I	S				N
6	E	R	R	E	G			

Ebazpenak

6	5	9	4	7	1	2	8	3
7	2	4	5	8	3	9	1	6
8	3	1	9	2	6	4	5	7
4	1	7	6	3	2	5	9	8
5	6	8	1	9	7	3	2	4
2	9	3	8	4	5	6	7	1
3	8	5	7	6	9	1	4	2
9	7	2	3	1	4	8	6	5
8	6	7	9	1	2	5	3	4
1	4	2	5	8	7	3	9	6

Puzzlea: "Ilustrazioak alptu gabe geratzen dira sarritan eta irudiak liburuia ulertzeko ezinbestekoak dira. Nik beste testu bat baliatzen hartzen ditut."

5x5: 1. Miatuz, 2. Uhartea, 3. Irribera, 4. Koaderno, 5. Nardo.

Hizki berak: 1. Lausengu, 2. Bultartsu, 3. Iraultza, 4. Eskualde, 5. Maisulan, 6. Erregalu.

María Torrellas • Dokumentalista



Herri komunikatzaile moduan definitzen du bere burua Maria Torrellasek (Aviles, 1955). Asturiarra sortzez, duela 23 urte etorri zen Euskal Herrira, Carlos Aznarez bikotekidearekin batera. Hemen euskaldundu eta hemen izan zuen Nagore alaba. 2004an Uruguaira joan zen bizitzera eta Argentinara ondoren. Bertan, *Resumen Latinoamericano* aldizkarian dihardu. Berak zuzendutako *Cubanas; Mujeres en Revolución* film dokumental berria aurkeztera etorri da gurera.

“Gutxi ezagutzen da Kubako iraultza feminismoaren ikuspuntutik”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: INIGO AZKONA

Euskarak emandakoa

“Euskal Herrian bizi izan nintzelarik, euskara ikastearekin batera ezagutu nituen herri honen sustraiak, kultura, musika... Kidetasuna topatu nuen hemen, izan ere, ama andaluziarra dut eta jazarritako familia batetik nator, aitona eta osaba hil zizkidaten frankistek Kordoban. Estatuko beste lekuetan ez bezala, nortasunaren eta oroimenaren borroka aurkitu nuen hemen. Euskara mantentzen saiatzen naiz, baina Argentinan zaila da, mintzatzeko lagun gutxi baitaude. Skype bidez mintzo naiz lagunekin, irratia euskaraz entzuten dut, filmak eta dokumentalak ikusi...”

Zer egiten duzue *Resumen Latinoamericano* aldizkarian?

Latinoamerikako borroka prozesuak jarraitzen ditugu, erresistentziak, sakaketak... Argentinan da edizio nagusia baina Brasil, Venezuelen, Perun eta Kuban ere argitaratzen da, tokian tokiko aldaerekin. Eztabaidarako tresna da, borrokarako, oso garai zaila delako hau. Latinoamerikan, eskuin muturra aurrera ari da bere aurpegirik krudelenarekin. Egia esan, egun, mundu osoaz ari den albiste agentzia da gurea.

Nola sortu zen Kubako emakumeei buruzko dokumentala egiteko ideia?

Krisialdian ezagutu nuen Kuba, 1993an. Iraultzaren zalea nintzen aurretik, baina asko hunkitu ninduen hango emakumeen borroka garai latz hartan. Eskasiari nola egiten zioten aurre. Kubako emakumeen jarraipena egiten hasi nintzen orduan, hango feminista bikain baten bidez. Isabel Moya zen bera eta aurtengo martxoan zendu zen, baina dokumentalean ere ageri da, zorionez. Gutxi ezagutzen da Kubako iraultza fe-

minismoaren ikuspuntutik, ikuspegi orokorra dago, gizonezkoena, baina Vilma Espín, Celia Sánchez eta Haydée Santamaría ez dira hain ezagunak Kubatik kanpo, ezta iraultzaren lorpen feministak ere. Errealitate hau ezagutzera emateko pentsatu nuen dokumentala egitea.

Zer eman die iraultzak Kubako emakumeei? Dokumentaleko galdera da.

Bai, eta erantzuna argia eta erabatekoa da, elkarrizketatu guztiek zein kaletan ausaz aurkitutakoek eman didate: “Iraultzak dena eman digu. Zer ginatekeen iraultzagatik ez balitz”. Hezkuntza, alfabetizazioa, ikasketak, lan egiteko aukerak, berdintasuna, duintasuna, kultura, kirola...

Familia giroan, hala ere, matxismo handia dago oraindik.

Bai, eta hori etxe barnekoa dela argitu behar da. Parlamentuan %49 dira jada emakumeak, unibertsitatean eta zientzian %60 dira, baina kulturari, sinboloetara eta familia roletara dagokienez zailago dute aldaketa.



Iraultzaren hastapenetik hona ere bila-kaera handia egon da.

Homosexualitatearen ikusgarritasuna asko landu da, esaterako, Mariela Castrok zuzentzen duen Sexu Heziketa Zentro Nazionalak lan handia egin du azken 30 urteotan LGBTB kolektiboaren onarpenerako. Ez ninduke harrituko orain eztabaidatzen ari diren konstituzio proiektuan sexu bereko ezkontzak onartuko balira, gizartea prestatuta baitago hori ulertzeko.

Argentinan, aldiz, guztiz bestelako egoera duzue, abortua debekatu dute.

Senatua dinosauroz beteta dago, emakumezko senatari eskuindar horiek... Jendea oso haserre dago Elizarekin, fetuak salbatzeaz obsesionatuta daude eta nahiago dute abortu klandestinoetan neskak hiltzen jarraitzea. Zapi laranja ezaugarri duen apostasia mugimendua sortu da.

Argentina-Kuba lotura handia dago, Guevaraz harago.

Chek Argentinako iraultzaileen belau-naldiak markatu ditu, lotura historikoa

“Ez ninduke harrituko orain Kuban eztabaidatzen ari diren konstituzio proiektuan sexu bereko ezkontzak onartuko balira”.

sortu zuen. 2006an Fidel Chavezekin Argentinara bisitan joan zelarik, 50.000 lagun hurbildu ziren unibertsitatera bera ikustera. Lotura horren erakusgarri, behin, Santiagon nengoela, parke batean emakume talde bat topatu nuen. Agurtu eta, Argentinatik nentorrela entzunda, txartel bat eman zidaten Maiztzeke Amei helarazteko esanez. Eraman nien mezua eta haiek mezua grabatu zuten Kubakoei bueltan emateko.

Nolakoa da Argentinako egoera?

Gobernurik gabeko herrialdea da, eskuin muturreko gobernua dago baina Nazioarteko Diru Funtzak agintzen digu. Oso egoera larria dago, Greziarena gogora ekartzen dit. Hasi dira krudelotasun handiz ministerioak desagertzen, irakaskuntza, ospitaleak...

Argentinarek nola erreakzionatu dute?

Hedabide hegemonikoak lan handia egin du jendea loguratzeko, zentzuna

galarazteko, horregatik bozkatu dute eskuin muturreko gobernu hau. Sektore borrokalaria oso apalduta daude baina horiek batzeko beharra dugu, kubata-rrek egin zuten moduan. Hori da zailena eta hori da Kubak eman digun lezioa, batasunarena.

Ezkerreko gobernuen garaia igaro da neurri handian. Zein da Resumen Latinoamericano-ren talaiatik egiten duzuen balantze kritikoa?

Gobernu aurrerakoi batzuk izan dira, Chavezek aitzinatuta, baina horiek ez dituzte euren politikak behar bezala erradikalizatu eta mapatik ezabatuak izan dira. Uruguairen kasuan, Frente Amplio eskumarantz lerratu da, multinazionalekin hitzarmenak egin dituzte eta hezkuntza publikoa hondatu dute, Nikaraguan ere berdin egin dute. Hiru borroka iraultzaile indartsu gelditzen zaizkigu: Kuba, Venezuela eta Bolivia. Brasilen Lula kendu dute, hauteskuntetara aurkeztu ez dadin. Egoera larria da, kapitalismoak hil egiten duelako, herriak suntsitzen ditu eta behar duen guztia egiten du baliabideak lortzeko. ■



Eva Braun ohorezko kantinera izendatu du Hondarribiko Alarde diskriminatzaileak

“Emakume gisa bere askatasuna baliatuz hartu zituen erabakiak” gores-teko asmoz, Hondarribi-ko Alarde baztertzaileak Eva Braun ohorezko kantinera izendatu du. Datorren urteko irailaren 8an egingo diote omenaldia herriko plaza-
zan: Braunen argazki-erakusketa bat jarriko du Alarde Fundazioak bere egoitzan eta ondoren liburu feminista batzuk erreko dituzte, “tradi-zioaren kontrakoak di-relako”. “Sentimendu oso fuerte bat daukagu Eva Braunekin”, azaldu dio Beranduegi Alarde baztertzaileko kide batek. Ondoren, *Exorzista* filmeko neska ba-litz bezala, 360 graduko bira eman dio



Eva Braun, eskuinean (nola ez), bere senar Adolfekin batera Hondarribiko Alardea ikusten (arxiboko irudia).

buruak, listua bota digu aurpegira eta gure argazkilariaren kamera puskatu du, “SATAN DA NIRE JAUNA!” oihuka-tzen zuen bitartean. Ondo gaude, lasai.

SAREAN ARRANTZATUA

Munstro parlantzua



Ezer ez jateko gogoak



Telefono-zenbakia aldatu duela aprobetxatuz, ikastolako gurasoen whatsapp taldetik irten da guraso bat

“Bai, bai, egia borobila da, telefono zen-bakia aldatzeko prozesuan nagoenez, alferrik nengoen ikastolako gurasoen taldean”, esan digu Maialen Andueza, egindakoaren inguruko zalantzak agertu dizkiogunean. Bizpahiru galdera gehi-go egin ondoren, baina, egia aitortu digu: “Ezin nuen gehiago. Ikasturtea hasi besterik ez da egin eta 187 mezu nituen jada! Eta dena, boligrafo batengatik. An-dereñoak eskatu digu umeek, nobedade moduan, boligrafo gorria ere ekartzeko eskolara, Bic markakoa ezinbestean. Eta

hor hasi dira guraso foroan, andereñoak ez duela eskubiderik boligrafo mota zehatz bat inposatzeko, askoz ere ho-beak direla Staedtler edota Pilot marka-koak, seme-alaben heziketari dagozkion erabaki inportante guztietan esku hartu nahi dutela, zuzendariari kexa agertu-ko diotela... Puuuf, hobe garaiz moztea, zeren eta aurki etxeko-lan kargari bu-ruz eztabaidatzen hasiko dira, galdutako objektuen ingurukoak edota ‘merendo-la-eredua’ ez aipatzearen. Ea, zenbaki berriaren zain, nitaz ahazten diren”.



Andueza, pozarren, mezueta lastorik ez duela ikusita.

Iraultza Txikien akampada

Tres dias de buen vivir Trois jours de bonne vie

Zubietta (Gipuzkoa)

irailak 21-22-23

Ostirala



LURRIKAREN ERDIAN, GUBERRIBAT?

19:00 - Gorbideak: Euskal Herriko Eskubide sozialak, Emakumeen Mundu Martxo, Amankomunik, Hiribarton hamere sarea.



16:00. Ongi etorri eta asanblada



22:00. Antzerkia
ERRADIKALAK GARA

larunbata



HERRI HUGIMENDUEN ETA INSTITUZIOEN ARTEKO HARREMANAK

Ezinak eta eginak

10:00 - Gorbideak: Lertatz Ugarte (EH Bildu) Laura Perez (Oinarri), Maravillas gaztelua, Josebe Irujo (Mediak)



ERASO MATXISTAK GURE ESPAZIOETAN

Tropeu zikriak aztergai (emakume jendarteraluentzako, ez mistoa)

10:00 - Gorbideak: Bileune Feminista, Ezker abertzalea, Joxemi Zumalabe



ZIRKATIK EGITEN DUGU GIZONOK ERASO?

Zer egin egin egiteari uzteko? (gizon jendarteraluentzako, ez mistoa)

10:00 - Gorbideak: Gizonerria, Zipizintzen, Toka



BIZITZA BURUABETZA: ALTERNATIBAK EZAGUTZEN ETA SARETZEN

10:00 - Abaraska (Ezkerabizita), Ordutza (Elkadura), Mtole kooperatiba (Lurri), Gureko emak (Ereaga), Kooop57 (Inarria elkarriak), Artekko venta (Elkarbizita) eta beste hainbat



BEHETIK ERALDATZEN, HUGIMENDU TXURI KLASA ERTAINEKDETATIK?

16:00 - Gorbideak: Gladys Giraldo (hugimendu feminista adibidea koloniarria), Anabel Sanz (Ongizate erakundeak eta Feministakok idazlea), Afaf Al Hasouli (Munduko emakumeak "Baber")



HERRI HUGIMENDUEN BORROKA HOLTIAK

Eztabaidagai: gatazkak, biolentziak eta aliantzak

16:00 - Gorbideak: Joxemi Zumalabe Fundazioa



BIZITZA BURUABETZA: MAHAI-INGURUA

Lurraldearen birjabetza: herri boterea bizitzarako espazioak berreskuratzeko

16:00 - Gorbideak: Amaia Oteaga, Andoni Egia, Bafat inazuegi



ELKARREKIN KONSPIRATUZ, PIZTU DITZAGUN ETXIAK ETA KALEAK!

Egin nahi dugu zer bait elkarrekin, behetik gora herri boterea eraikitzen jarraitzeko?



14:30. Bileraketa
BURUABETZAK



23:00. Poeta emanaketa
PDBESTIAK



00:00. Antzerkia
RUKULA

Orduak herri jentokian, elkadura, buruabetea ipor, itzulpenetza zerbitzuak seio guztietan
Emakume bilizte bidego
Kampaldea guztiek eraman behar dugu
zerbitzuak, gubi batzuk dena eraman ez
dizaten
Ekari lo zakua, kanpina,
musika tresnak... eta bizipoza!



LOLASTU ETA ERAIKI
Egun guztietan umeentzako
espazioa eta jarduerak

igandea



PROCES CATALA

Euskal herrigintzarako ikasgaiak

10:00 - Gorbideak: Migo Roberto (Euzko diktadura nazionala, Unai Aguilera (Zergatik ez?), Sorlu



JENDARTE LIKIDOA, MILITANTZIA LIKIDOA?

Eraginkortasuna, konpromisoa eta antolatuta ereduak

10:00 - Gorbideak: Saloa Itzola (Bileune Feminista eta Txomin Poveda (Suzkoago eta militantea)



ELKARREKIN KONSPIRATUZ, PIZTU DITZAGUN ETXIAK ETA KALEAK!

Egin nahi dugu zer bait elkarrekin, behetik gora herri boterea eraikitzen jarraitzeko?



16:00 **Ekitaldia** Erraustegia gelditu zutenei aitortza + **Erraustegira Martxa**



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com